

Urdalur, 25 urte

Urez hornitzen gaituen uberka barrura sartu gara haren funtzionamendua ezagutzeko / 2-4



Arbizuko plazako frontoi zaharrean estalpea jartzeari buruzko galdeketa eginen da / 11

Altsasuko osasun eskualdeko mediku faltak epe motzean ez du izanen konponbiderik / 7

Etxarri Aranazko Udalak 95.575 euroko balioa duten lanak egin ditu / 9

Elizak inmatrikulatutako zerrenda berrian 7 ondasun gutxiago agertzen dira / 6

Zabaleta Binakako Txapelketako lehen itzuliko pilotaririk onena izan da / 18

Jon Arakama Goikoetxea etxarriarraren bideo bat birala bihurtu da / 21

Mikel Azpiroz 'Buton' baxu jolearen La Excavadora proiektu berria / 23



Igandean Altsasuko I. Duatloi Krosa jokatu da goizeko 10:00etatik aurrera Dantzalekun / 15

Altzaniako erretena bertatik bertara

MARIO CARRERAS ETA MIGUEL ANADON CHE-KO TEKNIKARIAK

Ebroko Ur Konfederazioko bi arduradunekin Urdalurko erretena edo uberka bisitatu dugu eta harekin nola lan egiten duten azaldu dute

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Urdalur urtegia mustu zutela 25 urte bete ziren igandean. Eta horrela bukatu ziren ibarreko herrietan garai batean udan hain ohikoak ziren ur mozketak. Horretako eraiki baitzuten erretena, Sakana urez hornitzeko. Uberkak jasotzen duen ura Sakanako Mankomunitateko Ur Zerbitzuak kudeatzen du. Erretena mustu zenean Altsasu eta Lakuntza arteko herriak urez hornitzen zituen. Gaur egun ur hodia Satrustegi-raino iris-

ten da eta Mank Etxarren arte luzatzeko lanetan ari da. Beste hodi batek Olatzagutia eta Ziordia hornitzen ditu. Urdalurko saretik eta Mank-en Ur Zerbitzutik kanpo daude Irañeta, Uharte Arakil, Arruazu eta Etxarri Aranatz.

Ziordiko lurretan jaso zen erretena Estatuarena da eta Ebroko Ur Konfederazioak kudeatzen du. Eta erakunde horretako bi kide izan dira uberka nola funtzionatzen duen bertatik bertara azaldu digutenak: Mario Carreras, Ustiapeneko Baliabideen Kudeaketa Arloko burua (aurretik eskualdeko ustiapen burua zena eta, horregatik, ondo ezagutzen ditu erretena eta haren erabilerak) eta Miguel Anadon, 3. Ustiapen Zerbitzuko teknikaria, uberka hori barne hartzen duena. Urdalur erretenean sartzera goaz.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**


Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Desplazamendua neurtzeko "iltzeak"



Pontoiko ur hartunea




Ur harguneak




Azpiko hustubideak



Ekologia emaria



Bloke juntura



Gainezkaidea



Goiko galeria



Balbuka gabera



Gainezkaideko tranpolina eta putzua

Zer motako erretena da Urdalurkoa?

Grabitate uberka da, arrabolaz trinkotutako hormigoiz egina. Hau da, porlana bota eta lurra mugitzeko erabiltzen den maki-neriarekin zabaltzen da. Horrela, errendimendua hobetu egiten da eta ohiko dardaratutako hormigoiarekin baino azkarrago egiten dira lanak. Uberka egitean ezin da ohiko kofratzea erabili. Mailaka kofratu behar duzu. Horregatik, mota honetako erreteneak mailak dituzte. Trinkotutako hormigoizko uberkak identifikatzeko bereizgarri dira mailak. Teknika hori erabilia Estatuan egin zen lehen erretenetako bat izan zen Urdalurkoa. Uberkak bi galeria ditu. Haietan dauden tresna batzuen bidez erretena auskultatzen dugu.

Auskultatu, medikuak egiten duen moduan?

Hori da. Uberka baten jokabidea aztertzeko hiru aldagai aztertzen dira: formazioari dagozkionak (asentatzen den, alde batera edo bestera, gora edo behera mugitzen den), hidraulikoak (filtrazioen kontuagatik), eta, bestea, tentsioari dagokiona. Horrela, presanola dagoen dakigu. Eta, horren arabera, dagokion atalaren mantentze lana egiten dugu. Galerietan jartzen dira ekipamendu guztiak, ikuskapena egitea ahalbidetzen dizu eta tratamenduren bat eman behar bada horretarako aukera ematen dizu.

Zer mantentze lan eskatzen ditu Urdalurrek?

Edozein erretenean mantentze plana du. Mekanika, elektrika eta auskultazio atalean banatzen dugu. Mekanikari dagokiona da ur irteerarekin zerikusia duen guztia da. Arlo elektrikoan babes koadro guztiak, ekipoak eragiteko koadroak... Eta auskultazioa uberka bakoitzaren araberakoa da. Erreten modernoagoek auskultatzeko ekipo gehiago dituzte eta pixka bat zaharragoak direnak sentsore gutxiago dituzte. Sentsoreen arabera planean neurketa maiztasuna zehazten da. Irakurketa batzuk egunero egin behar dira, esaterako, urtegiaren ur maila. Eta beste batzuk astean behin egiten dira, esate baterako, piezometria.

Hori guztia telematikoki egiteko aukera duzue?

Bai. Urdalur eta Ebroko Ur konfederazioaren uberka guztiak SAIH-Ebro (Hidrologia Informazio Sistema Automatikoa) sarean daude. Han seinale guztiak jaso-

tzen dira: ur maila, bolumena, ura askatzeko organoen irekiera eta itxiera, auskultazio aldagai guztiak... SAIHko auskultazio aldagai guztiak Geiser erremin-tara pasatzen da (urtegien kudeaketa, ikuskapenak, segurtasuna, berrikusketa ekipamenduak). Hark aukera ematen du datuak aztertzeko, egokiak diren edo ikusteko, arazoren bat ote dagoen jakiteko, edo dena delakorako. SAIH sarean arroko prozesu zentroa dago eta 24 orduz 365 egunetan lanean dago. Urrutiko aginteak eta automatizatua izateak, telefono mugikor batean edo ordenagailu batean edozein tokitatik ikusteko aukera ematen dute. Baina, akaso, garrantzitsuena da langileak ditugula instalazioan bertan. Horrela, prebentzio mantentzea egin dezakegu. Baita sentsore automatiko horietako edozeinen matxurak atzeman ere. Langileak uberkan ditugun "begiak" dira.

Uberkak lan handia ematen dizue?

Ez. Obra nahikoa sendoak dira. Mantentzea, jarraipena, zaintza eskatzen dute. Ez da lan berri bat egitea bezain ikusgarria. Baina oso zehatzak da; distantzia luzeko korrikalarien parekoa da haien lana. Erretenean dauden langileek primeran ezagutzen dituzte sortzen diren pitzadura txikiak, ur sartze txikiak... Egunean eramanda, mantenua edeki asko egin daiteke.

Erretenak nola funtzionatzen du?

Uberka bakoitzean modu desberdinean funtzionatzen du. Urdalurren balbula ganberan (uber-karen oinean dagoen etxola) bat egiten dute hornidura uraren instalazioak eta hondoko hustubideko bi hodiak. Azken horren helburua da, lehenik, erretena eraikitzen ari ziren bitartean kargatze fasea egiteko urtegiaren betetzea kontrolatzea, progresiboa izateko, motela izateko eta egiturakerantzun egokia ematen duela ikusi ahal izateko. Behin uberka eginda, beharrezkoa izanez gero, urtegia hustu ahal izatea. Sakana urez hornitzeko egin zen eta ur hartuneak horretarako dira. Hiru ur hartune bikoitz daude. Uberkaren goiko

eta erdialdeko hartuneetako hodiak erretenaren kanpoko alde-tik jaisten dira. Balbulen ganberan beheko hartunea dago. Hodiak han bertan biratzen dute, ganberatik atera eta beste etxola batean bi hodiekin bat egiten dute. Erregulazio balbula bat dago. Sakanako Mankomunitateak duen eskaeraren arabera balbula zabaltzen edo itxi egiten du.

Ura presio handian aterako da...

Karga hausteko elementuak ditu Mank-ek. Guk esaterako, orain ekologia hartunea erabiltzen ari gara eta ura zein abiaduran eta zein presiotan ateratzen den ikusi dezakegu.

Ibaiak ekologia emaria izan behar du beti. Hori nola lortzen duzue?

Ekologia hartunearekin. Orain, gutxi gorabehera segundoko metro kubiko bat ematen ari da. Hornidura ur hodi baten adar bat da. Kalean ura botatzen ari den balbula da. Hartune horren bidez bueltatzen diogu emaria ibaiari.

Hiru ur hartune: goian, erdian eta behean.

Hala jasoa zegoen hasierako proiektuan. Azken batean kalitate kontu bat da. Mank-ekin koordinatzen gara. Haien mangeso edo burdin arazoren bat baldin badute, ura hartzeko aukera onena zein den hitz egiten dugu. Oraintxe urtegiaren pontoia dugu. Hura beheko hartunera lotuta dago, urtegiaren sakonera guztia baliatu ahal izateko. Urtegiaren maila bat edo bestea izan, pontoia bidez ura beti ur azaletik metro eta erdira edo bi metrotara hartzen da. Orokorrean urtegiaren estratifikazio termikoa sortzen da. Urtegiako ur zutabearen beheko aldean dagoen urak eutrofizazio arazo gehiago izaten ditu, eta kalitate txarragoa du. Hartune flotagarriak aukera ematen du ura hobe den tokitik hartzeko. Kasu batzuetan, esaterako, ura oso bero badago, Mank-ekin koordinatuz, ur hartune bateko eta besteko urak nahastu dira. Kasu puntualak dira horiek, eta Mank-en premien arabera egiten da. Baina, bestela, egunerokoan, hartune flotagarria dugu eten-gabe lanean.

Gainezkaidea dago erretenaren goiko partean.

Beheko hustubideak urtegia husteko aukera ematen du. Erretenaren goiko partean dagoen gainezkaideetik ateratzen dena

Hurrengo orrian segi>>

**"URAREN
KALITATEAGATIK
MANK-EKIN
KOORDINATUTA LAN
EGITEN DUGU"**



Urdalur urtegiaren arduratzen diren bi langileak ezkerrean. Eta, ondoan, Mario Carreras eta Migel Anadon, balbulen ganberan.

<< Aurreko orritik dator

urtegiaren biltzeko gaitasunik ez dugun ura da. Ur maila gainezkabidearen “ezpainera” iristean hasten da handik ura pasatzen eta erreteneko horman behera egiten. Urdalurko gainezkabidea “ezpain” finkokoa da, uhaterik ez duelako. Gauden garaian egonda, urtegia betetzeko tarte bat falta da. Ur goraldi handi bat baldin balego, ur emaria moteltzeko aukera ematen digu horrek. Eta, horrela, ibaian bukatzen duen ura urtegiaren sartzen dena baino txikiagoa da (uholdeak saihesteko).

Gainezkabidean maiz ikusten dugu zuhaitzen bat trabeska.

Baina horretarako da mantentze lana. Ikusketa egiten da, eta ura husteko organoen funtzionamendua kaltetu dezakeen edozein elementu kendu egiten da. Egurra, normalean, edo gainezkabidetik ateratzen da, edo urarekin eta usteldu eta urtegiaren ondoan bukatzen du.

Eguraldi iragarpenaren berri uneoro duzue?

Bai. SAIHk, kontrol zentroan erretenak monitorizatzeaz eta haien seinaleak jasotzeaz aparte, AEMETekin eta Europa erdialdeko modeloarekin hitzarmenak ditu. Haien bidez hainbat eguraldi iragarpen jasotzen dira, epe motzeko iragarpenak eta epe ertain eta luzeko iragarpenak. Lehenak zehatzagoak dira eta 7 edo 8 egunera egindako epe luzeko iragarpenak orientagarriak dira: frontea etorriko den edo

antizikloia egonen den eta euri tantarik ez dela egonen. Eguraldi iragarpenaren arabera urtegia modu batera edo bestera kudeatzen dugu.

Urtegiak noiz husten dira?

Premia dagoenean. Uberken arabera, jendea hiru txandatan dago lanean bertan. Baina edozein prebentzio maniobra egin behar denean, berdin da eguna edo ordua, urtegiara joan eta egiten dugu.

Zer gertatzen da ur gutxi dagoenean?

25 urtetan, zorionez, Urdalurren ez da halakorik gertatu. Urtegiak 5,4 hektometro kubikoko bolumena du eta arroaren urteroko bataz besteko ekarpena 14,3 Hm³ da, ia hiru urtegi betetzeko modukoa. Ez dugu arazorik izan dagoen ur eskaerari erantzuteko eta urtegia betetzeko. Klima aldetik lehorragoa den beste urtegiaren batean, edo ur erregulazio ahalmena baino eskaera handiagoa den urtegiaren batean, lehorre planak daude. Ur erreserbaren arabera, plan horiek zehazten dute zein protokolo segi behar den. Esaterako, ureztatzeko ura proportzionalki banatzen hasia edo ur hornidura lehentasunezkoak ez diren aisialdirako erabilera batzuetarako ura moztea.

"ERREGULAZIO KANONAREN %20 ESTATUAK PAGATZEN DU, GAINONTZEKO %80 MANK-EK"

Ur maila jaisten denean, urarekin kontaktuan dagoen pareta ikuskatzeko baliatzen da?

Prebentzio mantentze lanen barruan, begi ikuskapena dago. Langileek balbulen ganbera, hustubideren bat edo halakoen ikuskapena egiten dute egunero. Baina aparte, urtegia inguratzen duen bidean barna buelta eman behar da, filtrazioren bat dagoen begiratu... Estalita dauden elementuak urtegiaren ur maila jaistean ikuskatzen dira, jakiteko dilatazio junturaren bat zabalik dagoen, hormaren aurpegian edozein arazo dagoen...

Urtegia itxituraz inguratuta dago.

Pertsonen kontsumorako bideratutako ura ahalik eta gehien babesten saiatzen gara. Edozein erabilera (abeltzaintza, nekazaritza eta abar) urtegiaren kutsadura iturri bihurtzen da, puntuala edo difusoa, eta uraren kalitateari kalte egiten dio. Urdalurko itxiturarekin halako jarduerak mugatu nahi ditugu. Gainera, dituen ezaugarri geometrikoengatik urtegia zenbait erabilerearako ez da egokia. Beste urtegi batzuetan sky-surfa edo nabigazioa baimentzen dira. Baina horretarako jendeak eskatu behar du eta urtegia ez da ur hornidurarako erabili behar. Erreteneko ur harguneak zuhaitzekin edo lohiarekin ixten zaizkizue? Mantentze planeko helburuetako bat da hustubideetan prebentzio maniobra egitea da. Esaterako, beheko hartunea bakarrik arazoren bat dagoenean erabili-

ko bagenu, urtegiaren huste partziala egiteko adibidez, agian ez genuke sekula erabiliko. Planean egin behar batzuk daude, balbulak lanean jartzeko, erabiltzeko prest egon daitezen. Gainera, beheko ur hartunearen inbutu ondoan sedimenturen bat baldin badago, aukera ematen du hura zurrupatzeko eta ur hartunearen ondoan ez pilatzeko.

Nola finantzatzen da hau guztia?

Uren Legearen testu bateginean, Estatuarenak diren uberketan, erregulazio kanona dago. Uraren erabilera tarifa eta erregulazio kanona dago. Urtegiaren kasuan erregulazio kanona da. Kanon hori erabiltzaileek ordaintzen dute. Funtsean hiru zati ditu: kontserbazio eta mantentze gastuak (eguneroko lanak eta konponketa lanak), kudeatzailearen kudeaketa gastuak (teknikariak, ingeniariak) eta inbertsio lanak (lan handiak). Kostu horietatik ehuneko bat ur azalari dagokiona da, Estatua eta herritar guztiak dira horren onuradunak eta hori ez du Mank-ek pagatzen. Urdalurren kasuan %20 da. Gainontzeko %80 da Mank-ek pagatzen duena urte akaberan. 2006 edo 2007ra arte gutxi gorabehera. Iruñerriko Mankomunitateak

"SEKULA EZ DUGU UR PREMIARIK IZAN, HIRU URTEGI BETETZEKO ADINA UR EKARPEN DAGO"

ere hartzen zuen Urdalurko ura. Garai hartan gastua bi mankomunitateen artean pagatzen zen. Baina gaur egun soilik Mank-ek hartzen du ura, eta hark bakarrik pagatzen du kostua.

Mantentze lanak nola egiten dituzue?

Dugun aurrekontuaren barruan, lantxoak egiten ditugu, uharka mantentzeko. Esplotazio juntak zehazten duen aurrekontura egokitzen gara mantentze lanak egiteko. Urte batetik bestera kostua nabarmen ez igotzeko moduan egiten dugu horrela, lanak egitea gehiago kostatzen bada ere. Joan den urtean goiko galeria eta beheko galeria lotzen dituen pasabidean eskailera guztiak aldatu ziren eta argiztapena bikoiztu zuten. Urak zikindu egiten du manganesoa-edo duelako eta galerietako ezpondak garbitu izan behar dira. Horretarako hainbat hartune dituen ur hodia jarri dute, langileek haietan ura presiora botatzen duen makina konektatu eta garbiketa errazago egiteko. Uberkaren “harmaila” gainean dagoen eta galerian sartzeko balio duen metalezko pasabidea berritu dute. Erretenaren kanpotik joaten diren ur hartuneen hodieta zenbait elementu margotu dira. Uberkak mailak izatean nahikoa begetazio du, baina orain ongi dago. Presaren oinean zuhaitzik ez egotea ere beharrezkoa da; moztutako zuhaixken arrastoak daude horregatik. Aurten uberka gaineako baranda berrituko dute eta uharka oinean dagoen itxitura kenduko dute, “egoera txarrean dago eta ez du asko egiten. Hasiera batean presara ez sartzeko jarri zen. Baina gaur egun uharkak dituen itxiturekin nahikoa da.

Urdalurren argindarra sortzeko turbina jar liteke?

Lehenik, bideragarritasun azterketa egin behar litzateke, errentagarria den edo ez jakiteko. Ur saltoa dago eta emaria dago. Baina administrazio tramitazioa ere badago. Hau da, aprobetxamendu hidroelektrikoa egiten denean, Uren Legearen testu bateraginera joan behar da. Han eman beharreko pausoak zehaztuta daude: lehiketa, ikerketa... Akaberan errentagarria eta bideragarria dela ikusiz gero, orduan garatzeko aukera legoke. A priori, ezetz esateko arrazoirik ez dago, baina, logikoki, alde aurretik eman beharreko pauso ugari daude turbina bat jartzeko.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Neurriaren giltza

Kirola, lehia dakarren jarduera fisikoa omen da. Bata bestea baino gehiago den egiaztatzeko balio duen neurketa arautua. Askoren esanetan, norbanako edo talde baten berezko sen lehiakorra asetzeko eta bere mugak gainditzeko balio duena. Txikitatik kirolean trebatu behar dugula erakusten digute, osasuntsua eta hezigarria dela. Kirolak, drogen eta bizioen menpekotasunetik libratuko gaituela, orain eta gure heriotzaren ordu hartan, amen.

Jarduera fisikoaren ekarpena, dudarik gabe, emankorra eta aberasgarria da. Hezkuntzan egon da txertatuta, Antzinarotik gaur egun arte. *Mens sana in corpore sano*. Baina sarritan ez da batere sana hark dakarren lehia bizia. Errespetuaren muga gainditzeko denean, kirola hezigarri izatetik baztertzaile izatera igarotzen da. XXI. mendean sartu ginenetik, ahalegin handiak egin dira kirola ekitatez bizitzeko bideak jorratzen. Muga guztien gainera, kirolari ezinduenaren ametsak betetzen saiatu da gizartea. Hankak galdu zituen korrikalari olinpikotik, itsu

ERRESPETUAREN MUGA GAINDITZEN DENEAN, KIROLA HEZIGARRI IZATETIK BAZTERTZAILE IZATERA IGAROTZEN DA

garbienarekin identifikatzen dutena. Lehia areagotzeko, kirolaria amorru egoeran sartzea sustatzen duten entrenatzaileak, sor ditzaketen kalteei itsu. Beren seme alabengan euren txikitako frustrazioak kobratu nahi dituzten gurasoak. Lehiakideak etsaitzat hartzen dituzten bortizkeriaren sustatzaileak. Ikusgai nonahi. Errespetuaren mugetan, ezin bilaturik neurriaren giltza.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Irregularra? Ilegala? Pertsonak? Egoerak? Jarduerak? Bai? Ez? Aldeak argitzen

ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Inor ez da irregularra ezta ilegal. Pertsona, gizakia une zehatz batean dagoeneko egoera izan daiteke halakoa. Baina sekula ez pertsona bera, portaera baizik. Ez dago pertsonaren jatorria egoera posible hauei loturik, zenbaitekin hala dela sinetsi arazi nahi badigute ere: makina bat komunikabide eta interes politikoei... Hori, hain zuzen ere, zurrumurru bat zabaltzea da, horrek dakarzkigun ondorio ezkorrekin.

Hortaz, eta horren aurrean, erne egotea besterik ez daukagu, eta benetako informazio iturrietara jotzea. Hori da bidea.

Hala ere, makina bat alde dago bi kontzeptuen artean. Egoera

irregularrean dagoena askatasunez mugitzea ekiditen dioen alantze hesiak saihesten saiatzen da, saiakera horretan larruazala bera ere utziko badu. Melillako hesia adibide, guretik nahiko bertan. Ez hain urrun, hementxe baizik. Egoera ilegalean dagoena, ordea, alantze hesiez babestuan izan behar duten mugak sustatu eta elikatzeaz bizi da. Horrelakotik asko dugu gure ingurune hurbilean ere. Ezin ahaz dezakegu, bidezkoak izan nahi badugu behintzat.

Egoera irregularrean dagoena, kainu zuloan ezkutatzen da, ez baitu nahi kainu zuloatik jaurtia izan. Egoera ilegalean dagoenak ordea, kainu zuloa oztopatzen

du, bestelako zer baiten premia aldarrikatzera iritsi arte. Irregularitasun egoeran dagoenak estolderia erabiltzen du miseriatik ihes egiteko. Egoera ilegalean dagoenak, ordea, estolderia, estolderiatik eta estolderiarako bizi da.

Egoera irregularrean dagoen pertsona, gizakia, den bezalakoa ikus ezina den iluntasun eta itzaletan babesten da. Ilegaltasunean dagoenak aldiz, bere itzala proiektatuko du iluntasunik sakonenean ere.

Askatasun faltaren aurrean norbera nahastea ez da ilegaltasuna, eginbeharra baizik; askatasuna lortzeko ez borrokatzea aldiz, bekaketa da, eta ez aukera bat.

Ez gaitezen nahasi...



OBJEKTIBOTIK



Zuretzat, ilargia lapurtuko nuke gauero...

Neguko hego haizeko egun argitsuetan, beleak horrela abesten dio ilargiari haritzaren gainean. Eguraldiarekin pozik egongo ote da, edo ilargiaz maitemindua egongo ote da?

ZUZENKETA

Jakinarazi digutenez, joan den astean Lakuntzako kintoen zerrenda ematean ez genuen osoa eman. Hau da zerrenda osoa: Ainhoa Arraiza, Ione Li Berreguero, Manex Alegria, Aitor Ondarra, Amaia Andueza, Jawad Handi, Irene Gartzandia, Julen Askarai Lanz, Gorka Cocera, Andoni Añazco, Cristian Barado Valdez, Jon Zubillaga, Iraia eta Ane Zubeldia Morras, Hodei Alegre eta Sael Ozoria.

Eta Arbizuko zerrenda ere osatu gabe eman genuela jakinarazi digute, hona osoa: Alain Gorriti, Haritz Estanga, Iraitz Petriati, Goiatz Mendiñueta, Igaratz Reparaz, Ioritz Gorrotxategi, Leire Urkia, Mikel Imaz, Mikel Chacon, Iker Lizarraga, Naroa Nuñez, Nerea Etxabarri, Jeray Terradillos, Xabi Muru-garren, Aitzol Gaintzarain, Aintzira Arretxe, Ane Iza eta Higer Balda.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Enelda Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Miren Alonso Razkin

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Elizak inmatrikulatutako ondasunen artean dago Bakaikuko Santiago ermita. ARTXIBOA

Gobernuaren zerrendan 7 inmatrikulazio gutxiago

Espainiako Gobernuak zabaldutako zerrendan Iruñeko elizbarrutiak bere edo herrietako parrokien izenean jarritako 59 daude; Nafarroako Ondarearen Aldeko Plataformaren zerrendan 66 dira

SAKANA
Eliza Katolikoak 1998an Jose Maria Aznarrek bultzatutako lege bati esker 34.961 ondasun higiezin inmatrikulatu zituen. Hau da, hipoteka araudiak elizari gurtzarako edo ez gurtzarako ziren ondasun higiezinak bere izenean jartzeko aukera eman zion. Eta hala egin zuen. Horrela jaso du Ministroen Kontseiluak Espainiako Kongresuari bidali dion agiriak. Orain inmatrikulazio horien jatorria kontsultatu daiteke eta, titular-tasunari buruzko gatazkarik balego, posible litzateke ondasunen erreklamazioa egitea.

Aipatu agirian Sakanako 59 ondasun elizaren izenean daude, guztiak dagokion herriko parrokiaren izenean erregistratuta Iruñeko 8 zenbakidun erregistroan. Salbuespena Uharte Arakilgo Zamartze ermita eta aldameneko bi etxebizitzak dira, horiek Iruñeko elizbarrutiaren izenean erregistratuta baitaude. Elizak ibarrean erregistratutako

ondasunen motari dagokionez, 29 ermitak dira, 27 elizak, 2 etxebizitza eta lursail bat. Arakil aldean estimu handia dioten eta Itzako Aginaga herriko lurretan dagoen Ergako Trinitate ermita Iruñeko Elizbarrutiarena da, Iruñeko 3 zenbakidun erregistroan hala jasoa.

Zazpi gehiago
Nafarroako Ondarearen Aldeko Plataforma herritarrek eta udalek osatzen dute eta "herriek beraien ondarearen jabetza berreskuratzeko lan" egiten du. 2008. urtean Nafarroan elizak inmatrikulatutako ondasunen zerrenda argitaratu zuen eta han ibarreko 66 ondasun ageri ziren, Espainiako Gobernuaren zerren-

ONDASUNEN BAT ERREKLAMATU NAHI DUTENEK EPAITEGIETARA JO BEHARKO DUTE

dan baino zazpi gehiago. Plataformaren zerrendan agertu baina asteartean publiko egin zen zerrendan ez dauden ondasunak honakoak dira: Aizkorbeiko Kaskalluko larrea, Etxeberriko eliza eta Uharte Arakilgo Zamartzaldeko bost lur sail.

Aipatutako bi zerrendetan Sakanako beste 17 erlijio eraikinen aipamenik ez da egiten. Honakoak dira zerrenda horietan agertzen ez direnak: Egiarretako Itxaspe-rriko Santiago ermita, Ekaiko San Lorenzo ermita, Satrustegiko San Esteban eta Santa Barbara ermitak, Hiriberri Arakilgo San Anton eta Berastegiko Andra Mari ermitak, Ihabarko San Joan ermita, Irañetako San Gregorio ermita, Uharte Arakilgo Aralar-ko santutegia, Etxarri Aranazko Andra Mari eta San Adrian ermitak, Bakaiku eta Iturmendiren Trinitate ermita eta Altsasuko San Joan eta Erkudengo Ama ermitak. Gainera, Atondoko Oskiako Andra Mari ermita ere ez da zerrendetan ageri.

Inmatrikulatutako ondasunen zerrenda

Udalerria	Kontzejua	Eraikina
Altsasu		Otadiko Kristo Deuna ermita
		Jasokundeko Andra Mariaren eliza
Arakil	Aizkorbe	San Andres eliza
	Ekai	San Andres eliza
	Etxarren	San Bizente eliza
	Egiarreta	San Antonio abadea eliza
	Errotz	San Babil eliza
	Izurdiaga	San Joan Bataiatzailea eliza
		Orubea San Joan kalean z/g
	Satrustegi	San Migel eliza
	Urritzola	San Pedro eliza
Arbizu	Hiriberri A.	San Martin eliza
	Ihabar	San Esteban eliza
	Zuhatzu	San Martin eliza
		Santa Maria eliza
		San Joan Bataiatzailea ermita
Arruazu		Jasokundearen eliza
		San Pedro ermita
Bakaiku		San Joan Bataiatzailea eliza
		Santiago ermita
		San Benito ermita
		San Klemente eliza
Ergoiena	Lizarraga	San Migel ermita
	Lizarraga	San Martin ermita
	Lizarraga	San Donato ermita
	Lizarraga	San Adrian ermita
	Lizarraga	Jasokundearen eliza
	Dorrao	San Pedro eliza
	Unanu	San Andres ermita
	Unanu	San Andres ermita
		Santa Maria eliza
Etxarri Aranatz		Kontzepzio ermita
		San Gregorio ermita
		San Joan Bataiatzailea eliza
Irañeta		San Pedro ermita
		San Migel Berri ermita
		San Martin eliza
Irurtzun		San Migel eliza
Iturmendi		Aitzaga ermita
		Pilarekoa ermita
		San Pedro ermita
		San Salvador eliza
Lakuntza		San Sebastian ermita
		San Antonio abadea ermita
		San Migel eliza
Olatzagutia		San Sebastian ermita
Uharte Arakil		San Joan Bataiatzailea eliza
		Zamartzeko ermita
		Etxebizitza Zamartzalden
		Etxebizitza Zamartzalden
		Santa Luzia ermita
		San Bartolome ermita
		San Bizente ermita
		San Donato ermita
		Jasokundearen eliza
Urdiain		San Pedro ermita
		San Joan ermita
		Aitziber ermita
Ziordia		Jasokundearen eliza
		Milagro ermita

Hiru medikuren faltan segitzen dute Osasun Eskualdean

Osasunbidetik jakinarazi dute epe motzerako ez dagoela konponbiderik. Mediku falta omen dago

ALTSASU /OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Altsasuko Oinarrizko Osasun Eskualdean hiru medikuren faltarekin segitzen dute. Egoera bideratzea eskatzeko bilera egin zuten joan den ostiralean hiru alkateak Osasunbideko Lehen

Arretako iparraldeko arduradun Susana Mirandarekin. Bilkuran osasun eskualdeko profesionalen ordezkaritza ere egon zen.

Mirandak azaldu zuenez, “ez dago mediku nahikorik; fakultateetatik behar baino mediku

gutxiago ateratzen dira”. Horregatik, epe laburrera konponbiderik ez dute ikusten. Argitu zuenez, “mediku plaza horiek eskaini eta eskaini ari gara, baina hainbat arrazoiengatik medikuek ez dituzte hartzen”. Osasunbideko arduradunak azaldu zuenez, garagarrilean oposizioa hasiko da, baina abendura arte ez da bukatuko. Bestalde, jakinarazi zuen ikasketak egin ondoren lau urteko erresidentzia maiatzean bukatuko duten medikuekin harremanetan daudela.



Ziordiko kontsultategia udaletxean dago.

Alkateek epe ertain eta luzerako begirada izateko eskatu zioten Osasunbideko arduradunari, “gaur gu baina bihar beste edozein izan daitekeelako”, azaldu du Irizarrek. Landa eremuetan osasun zerbitzua bermatzeko estrategia definitzea eskatu zioten. Batzuk eta besteak informazio kanalak zabalik mantentzekotan gelditu ziren. Azkenik, alkateek, osasun eskualdeko langileek dauden baldintzetan egiten ari diren lana aitortu nahi izan zuten.



Mutiko kuadrilla erdiko iturriaren ondoan. ARTXIBOA

Udalak hainbat lan egin ditu, tartean gaztetxokoa egokitu

Frontoiko argiteria berritu, usteldutako hesi batzuk aldatu, goiko iturriko ur ihesa konpondu

BAKAIKU

Bakaikuko Udalak Nafarroako Gobernuaren bi dirulaguntza jaso zituen 16.518 euro eta 19.000 eurokoak. Udalak haietako bat erabili du eta besteko diruarekin zer egin aztertzen ari da. Baina erabakia azkar hartu beharko du inbertsioa aurten egin behar baitu.

Egoitz Urzitza Lazkoz alkateak jakinarazi duenez, Iturriarte frontoian zeuden fokuak LED argiengatik aldatu dituzte. Horrela, energia gutxiago kontsumitu eta fakturan aurreztuko du udalak. Horrekin batera, pilotalekuan fluoreszente batzuk ordezkatu eta larrialdietako argiak jarri ditu. Guztia 8.000 euroekin. Frontoiko LED argiak herrian jarritako aurrenekoak dira. Kaleko argiteria berritzeko laguntza eskatu zuen, “baina aurrekoak gutxienez 20 urte izatea baloratu zuten eta Bakaikukoak 19 zituzten.

Laguntzaren zain gaude aldaketa egiteko”, azaldu du alkateak.

Bestalde, beheko iturriaren ondoan eta Barrenkalen egoera txarrean zeuden hesi batzuk burnizkoengatik aldatu dituzte. Horretara 5.000 bat euro bideratu ditu Bakaikuko Udalak. Eta beste 2.000 euro desfibriladorea erosteko. “Non jarri zehaztu gabe dugu oraindik, baina herri erdigunean egonen da”.

Goiko iturrian ur ihesa zegoenez, hura konpontzen aritu ziren iturgina eta kisugilea. Bestalde, frontoiaren kanpoko aldean iturria jartzeko asmoa dutela jakinarazi du alkateak. Azkenik, eskola zaharren eraikina zeneko beheko solairuan pladurrezko pareta jaso dute. Horrekin batera, “izotzak lehertuta zeuden hodiak berritu dira. Horrela, ura pasa daiteke eta komuna erabilgarri utzi dugu. Gaztetxokoa egonen da han”.

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan



Oihane Lakuntza Zelaia (Altsasu, 19 urte)

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza graduako bigarren maila ikasten ari da.

"Lan munduari aurre egiteko prestatzen gaituzte"

Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?

Altsasuko Iñigo Aritza Ikastolan ikasi nuen. Betidanik marraztea asko gustatu izan zait eta ikastolako azken urtean, zientzietako bidea egitea aukeratu nuen. DBH bukatu eta gero, 16 urterekin, bi urtez Goierri Eskolara joan nintzen Batxiler Teknologikoko ikasketak burutzera. Ondoren, Mondragon Unibertsitateko gradu bat ikastea erabaki nuen.

Zergatik aukeratu zenuen Industria Diseinu gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Diseinuarekin eta marrazketa-rekin zerikusia zeukan zerbait ikasi nahi nuen. Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza gradua asko gustatu zitzaidan; horregatik, gradu hau zuten unibertsitateak begiratzeko hasi nintzen. Ezagun batzuek jakinarazi zidaten Mondragon Unibertsitatean gradu hau ikasteko aukera zegoela eta bertan erabiltzen den metodologiari esker ikasleek formakuntza ona jasotzen zutela.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte, oso ona. Jende berri asko ezagutu dut eta bai irakasleengandik zein ikaskideengandik jasotzen dudana tratua oso ona da. Gainera, unibertsitateak ekintza desberdin asko eskaintzen ditu eta hauek ikasketek sortzen duten estre-

sa arintzeko oso ongi datoz. Etxetik kanpo egoteak ere pertsona gisa heldutasuna eman dit.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Proiektu eta praktiketan oinarritzen da. Akademikoki zein pertsonalki ditudan erronkei aurre egiteko oso metodo ona da. Gainera, egiten ditugun proiektuak eta eguneroko lanak ikasleek formakuntza asko aberasten dute, lan munduari aurre egiteko prestatzen gaituzte.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Praktika asko dagoela. Askok gustatzen zait ematen dugun teoria gehiena gero proiektuen bidez praktikan jartzen dugula. Hala ere, batzuetan pisutsuegia da teoriaren azterketarako ikastea eta proiektuak egitea denboraz larri ibiltzen garelako. Horregatik, teoria osoa azterketan jarri beharrean, azterketarako atalka banatuko nuke.

www.mondragon.edu/prest



Iker Manterola, Javier Ollo, Sonia Lopez Saldaña, Jon Bengoetxea eta Alfonso Nuin. NAFARROAKO PARLAMENTUA

Kirol ikasketa eskaintzaz bitan Parlamentuan

Sakanako lantaldeak ikasketa horiek kentzeko aukeraren inguruan bere iritzia eman zuen Hezkuntza Batzordean asteartean. Eta batzorde berean kontseilariak agerraldia egin zuen eta esan zuen oraindik ez dela erabakirik hartu

SAKANA

Sakana Lanbide Heziketako (LH) institutuko kirol ikasketekin heldu den ikasturtean zer gertatu den ez da aste honetan argitu. Gaia bitan egon da aste honetan Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean. Herenegun Geroa Baik, EH Bilduk eta I-Ek eskatuta Carlos Gimeno Gurpegi Hezkuntza Kontseilariak agerraldia egin zuen eta Altsasun egiten diren LHko kirol eskaintzaren inguruan oraindik erabakirik ez dela hartu esan zuen.

Tomas Rodriguez Garraza LHko zuzendari nagusiak argitu zuenez, "inolaz ere ez da esan ikasketak kendu behar zirenik. Delibera-

zioak zuzendaritza nagusiaren lantaldean izan dira. Ikastetxeko kontseilu Sozialean departamentuko ordezkariak esandakoa zehatz esandakoa jasotzen ez duen eta onartu gabe dagoen akta baten zirriborroan oinarrituta dago hau guztia". Rodriguezek argitu zuenez, Nafarroako ikasketa eskaintza martxoaren 31rako egin beharko luke.

Gimenok azaldu zuenez, ikastetxean duten eskaintza ikasturtero baloratzen da eta horretan zentroek parte hartzen dutela jakinarazi zuen. Kontseilariak gaineratu zuenez, "ikasketak ezartzeko irizpide teknikoak oinarritzen dira eta guztiz gardena da. Eta Sakana LHri buruz-

ko erabakia ez zen ez probisionala, ezta behin betikoa".

Ibarraz

Gimenok azaldu zuenez, Sakana LH institutua industria eremu batean kokatuta dagoela gaitzatu zuen, "horregatik, bere eskaintza industriari bideratuta dago". Sakanako Plan Estrategikoaren azken memorian jasotakoa gogorarazi zuen: Sakanako jardunaren %65 metalurgia da, populazio aktiboaren erdiak LH titulazioa du eta %45 ez du titulaziorik "eta kualifikatutako langileen premia handia aurreikusten da. Horregatik, besteak beste, LH institutuaren egitekoa da populazioa finkatzea erreali-

tatera egokitutako prestakuntzarekin, titulaziorik ez dutenei kreditatze bidea eman, eta langileendako eskaintza zabal eta erakargarria egitea".

Rodriguezek gaineratu zuenez, industriaren inguruan eratu behar da institutuaren ikasketa eskaintza, "eraldaketa digitalerantz jo behar du, edo titulaziorik ez dutenendako gaitasunen ziurtagiriaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren arloa landu beharko luke, eskualdeko langileen prestakuntza premiei erantzuteko". Prestakuntza premian daude metal arloko 4.000 langileetatik 1.800ek. Bestetik azaldu zuen, ikastetxeen ikasketa eskaintza estatikoa izan beharrean dinamikoa dela, aldatuz joaten dela.

Kontseilariak esan zuenez, "gaur egun edozein aldaketa egiten bada, ikastetxeek bere ikasketak egokitze eskaintza berriak egiten dira. Beti ere, ikastetxeekin batera. Eskaintzak eskualdearen ezaugarrietara egokituak dira". Gimeno gaineratu zuenez, "azterketaren hasieran daude, aurki despetituko dugu, heldu den ikasturteko eskaintza egiteko. Jakina, erabakirik hartu aurretik erakundearen ordezkariarekin iritziak trukatu beharko ditugu".

Hezkuntza arduradunak iragarri zuenez, heldu den ikasturtean Iruñean Lanbide Heziketako goi zikloko bi kirol ikasketa publiko izanen dira: kirol egokitzapeneko teknikaria (euskaraz eta ingelesez) eta gizarte eta kirol animazio teknikaria (gaztelaniaz eta ingelesez).

Asteartean, bestalde, Kirol ikasketak Altsasuko institutuan segitzearen alde sortutako batzordeko bost kidek bere iritzia jakinarazi zien Hezkuntza Batzordeko parlamentariei.

"Ezinbestekoa da torturaren errealitatea aitortzea"

Sortuk eta Ernaik Nafarroako Gobernuari dei egiten diote tortura lehenbailehen iker dezan

SAKANA

Sakanako torturaren kontrako ekitaldia egin zen Etxarri Arnatzen larunbatean. Deitzaileek gaitzatu dutenez, "1960-2014 bitartean, Sakanan, 149 tortura kasu daude erregistratuta, kreditatuta, salatuta. 20.000 biztanle dituen bailaran. 149 esperientzia latz bezain ahaztezin. Tamalez, oraindik ere, gehiago izanen dira ziurrenik".

Torturatuei benetako erreparazioa emateko, "tortura Estatu espainiarrak erabili duen metodo sistematikoa izan dela aitortu beharra dago. Urte luzez modu kontzientean estali diren egoerak ikustarazi eta aitortzea ezinbestekoa da, ez errepikatzea berma dadin". Gogorarazi zuten Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 11. aldiz torturak ez ikertzeagatik Espainia zigortu duela. Horietako kasuen instruktorea Fernando Grande Marlaska gaur egun Barne Ministroa dela azpimarratu zuten, eta hori "estatuan dagoen inpunitatearen adibidea da". Beste inork tortura ez pairatzeko Sortuk eta Ernaik beraien buruari "torturaren errealitatea azaleratzeko eta aitortzeko" lana jarri diote. Bestetik, Ospal-k deituta, Altsasun 60 pertsonak kontzentrazioa egin zuten.

BA AL ZENEKIEN....
1964AZ GEROZTIK GURE PRODUKTUAK EKOIZTEN GABILTZALA?

Gure historia gehiago ezagutu nahi baduzu, sartu:

amayachindegia.eus

AMAYA 1964- GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA



Emakumezkoa Zumalakarregi plazako estalpean sartzeaz. ARTXIBOA

Erabilera publikoko espazio pribatuendako araudia bidean

Altsasuko Udalaren araudiari proposamenak edota iradokizunak apirilaren 30era arte egin daitezke

ALTSASU

Zumalakarregi, Idertzagain, Baratzako Bide, Larrainbide, Intxaurren, Isidoro Melero eta beste hainbat kale eta plazetan portxeak dituzten etxebizitza blokeak daude. Edo Iruñea Etorbidean etxebizitza blokeen artean espazioa. Horiek guztiak jabetza pribatuak dira, baina erabilera publikoa dute. Altsasuko Udalak jakitun da espazio horietan urtetan arazoak sortu direla, "batez ere horiek mantentzeko betebeharrari dagokionez", zehaztu du Javier Ollo Martinezek. "Egoera horrek hainbat interpretazio ekarri ditu kasu bakoitzean jabeen eta udalaren artean, eta hori are larriagoa da horrelako egoerak udal eta udalez gaindiko araudian araututa ez daudelako".

Araudi falta dagoela ikusita, Altsasuko Udalak bere egitea erabaki du. Horretarako, batetik, Estatuko beste udal batzuetako araudietan eta gaiaren inguruko epaile erabakietan eta bestelakoetan oinarritu da. Erregulazio proposamenak dagoen eran aurrera egingen balu, udalak bere gain sei betebeharrak hartuko lituzke. Batetik, lurra eta hiri altzariak garbitzea, paramentuak eta sabaiak izan ezik (azken horiek ataripeen kasuan). Bestetik, argiteria publikoaren zerbitzua eta mantentze-lanak pasaguneak (kale-argiak eta ataripeko sabai-ko argi-puntuak, halakorik bada) behar bezala ikusteko eta hiri-altzariak aldatzeko. Aldi berean, hiri altzariak berritzearen ardua udalarena litzateke.

Bestalde, udalaren betebeharren artean leudeke, lorategirik balego, mantentze-lan egokiak egitea, udalerriko gainerako lekuetan aplikatzen diren arau eta estandarren arabera. Aldi berean, oinezkoak pasatzeko gunea behar bezala erabiltzea galarazten duten kaltetutako zoladurako elementuak eta segurtasuneko elementu osagarriak jarri beharko lituzke. Eta, azkenik, partzelari eragiten dioten azpiegitura-sare orokorren elementuak mantentzea. Proposamenaren jasotzen denez, Altsasuko Udalak ez luke zoladura osorik berritzeko inbertsiorik egingen.

Bestalde, araudi proposamenaren espazio horien jabeek bi betebeharrak aurreikusten zaizkie: eraikinen egitura elementuak zaintzea eta saneamendurako eta euri eta hondakin urak husteko azpiegituren sareak sare orokorrek lotu arte mantentzea, eta kaltetutako elementuak berritzea.

Nazioarteko lankidetzak

Udalak garapenerako laguntzak bultzatzeko 6.000 euro eman zituen joan den urtean: Agua de Coco fundazioa 816,33; Bonal fundazioa 734,69; ANARASD 795,92; Rode fundazioa 816,33; El Salvador Elkartasuna 877,55; Nuevos Caminos elkarte 673,47; Mugarik Gabeko Arkitektoak 673,47 eta Mugarik Gabe Nafarroa 612,24. Beste 6.282,09 euroak irabazi asmorik gabeko elkarten artean: ELA Elkarte 2.525,37; Asorna, 1.500 eta Biak Bat elkarte 2.256,72.



Plazan ibilbide zelai-zelaia egiteko lanak aste honetan.

Udalak 95.575 euroko inbertsioak egin ditu

Argiteria berrituko du Zumurdiñetan eta Arangorrietan, gainera kultur etxean eta futbol zelaietan LED argiak jarri dira. Oinezkoak erosoago ibili ahal izateko lanak egiten ari dira plazan. Aurretik zegoen oinezkoen eremu bat ere egokituko du

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Udalak hainbat inbertsio egin ditu. Handienak argiteriarekin lotura dutenak dira. LED argiak jarri eta, horrela, energia kontsumoa murriztu eta ordaindu beharrekoa txikituko du. Silvia Marañon Chasco alkateak azaldu duenez, Zumurdiñeta industrialdeko argiak aldatuko dira, baita Arangorrietako batzuk ere, herrian barna "solte" geditzen den besteren bat ere. Alde batetik, 20.500 euro bideratu ditu arlo horretan inbertsioak egitera. Bestetik, kultur etxeko (5.400 euro) eta futbol zelaiako argiak (4.050 euro) ere aldatu ditu, bietan LEDak jarritz.

Oinezkoendako espazio erosoagoak sortzeko 19.500 euro bideratu ditu udalak. Alde bateatik, ferietan azienda jartzen den tokian lurra ez da batere erregularra eta jendea handik ibiltzean aztapatu egiten da. Gainera, plazaren zati zelaian taberna baten terraza jartzen denez, udalak erabaki du plazaren zati horretan jendea erosoago ibiltzeko lanak egitea. Zehazki, harlosa "latzen" hiru ilara kendu du plaza zati horren luzera guztian, 82 metroan, eta harlosa zelai batzuegatik aldatu ditu. Bestetik, espaloia egingen da udaletxe ondoko okindegi parean.

Bestalde, udaleko zerbitzu orokorretako sailerako ibilgailu

berria erosi du. Pick up motako ibilgailua da udalak erosi duena. Tauro Motor SM enpresari erosi dio ibilgailua udalak. Horren truke 32.734,21 euro (BEZ barne) pagatu ditu udalak. Azkenik, hiltzgi zaharra hartzen zuen eraikinean komunak egokitzeko 3.500 euro bideratu ditu eta udaletxeko atea egokitzeko 5.420 euro. Azken lan horiekin udaletxe barruko atea aldatu da eta automatikoa jarri da, "horrela, herriarren irisgarritasuna errazteko", argitu du alkateak.

Azkenik, udalak Lizarragabengoako Kontzeju etxearendako pelleta erregaia duen estufa bat erosi du 6.000 euroekin. Kontzeju etxean ez zuten berogailurik.

Errotuluak euskaraz jartzen dituztenendako laguntzak

Errotuluak euskaraz jartzen dituzten komertzio, ostalaritza eta elkarteei laguntzak emanen dizkie

SAKANAKA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren hizkuntza paisaia euskalduntzeko egitasmoa da dirulaguntza hori. Haren bidez diruz lagunduko dira errotuluak, toldoak eta ibilgailu

komertzialen euskarazko errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari gastuaren %50 ordainduko dio Mank-ek. Betiere, gehiezin 500 euro emanen zaizkio jabeari. Euskaraz eta erdaraz

idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %25 ordainduko zaio, 250 euroko gehiezin mugarekin. Azken kasu horretan euskarazko testuak lehentasuna izan beharko du. Euskara Zerbitzuak horretarako 1.500 euro ditu aurtengo ekitaldirako. Deialdian interesa dutenek eskabideak azaroaren 30era arte egin ditzakete. Eskabidearekin aurkeztu beharko da: IFKren fotokopia, fakturaren fotokopia, errotularen argazkia eta aitortpena, jaso edo esakututako laguntza.

Klasea hondakinen kudeaketa gunean

Sakanako Mankomunitateak Arbizun duen hondakinen transferentzia gunea eta garbigunea bisitatuz ikasleek hiri hondakinek etxetik tratamendu plantara arteko bidea ezagutu dute

ARBIZU

Udazkenean Andra Mari ikastolako bi talde izan ziren eta ilbeltzaren 29an, berriz, Arbizuko haur eskolako ikasleak. Txikien presentziak itxuraldatu egin zuen Sakanako Mankomunitatearen hondakin kudeaketa gunearen eguneroko martxa. Bertako langileen azalpenak jarraituz, transferentzi gunearen eta garbigunearen txoko guztiak bisitatu zituzten eta Mank-ek hondakin bakoitza nola kudeatzen duen ikasteko aukera izan zuten.

Ikasleak ikasgaia ongi ikasita eramane zuten: "gure esku dago hondakindegian ahalik eta hondakin gutxien lurperatzea. Lehenik eta behin, hondakin sorrera gutxitu behar da eta, ondoren, hondakinak etxean ongi bereizi behar dira, berrerabili eta birziklatu ahal izateko". Hori berea praktikan ere jarri zuten, tratamendu plantara arteko bide bazterrean eta ondoko basoan opatutako hondakinak bildu baitzituzten eta gero zegokien edukiontzira bota zituzten.

Hondakinen kudeaketa

Ontzi arinak trailer handi batzuetan kargatzen dira Azkoien-ko Moratiel sailkatze plantara eramateko. Han ontziak material motaren arabera sailkatzen di-



Arbizuko eskolako ikasleak hondakinen kudeaketa gunean bisitan. MANK

tuzte: metalezkoak, plastiko motaren arabera... Egoki tratatu ondoren, material horiek produktu berriak sortzeko erabiliko dira.

Papera eta kartoia prentsatu ondoren Atarrabiako Abelan paper fabrikara eramaten dituzte han paper birziklatua egiteko.

Materia organikoa Kaparroso-ko biogas plantara eramaten da. Aurki martxan jartzeaz da konpost planta berria. Bestalde, auzokonpostetan sortutako konpostoa nahi duenak aukera duenak hartzeko aukera du.

Errefusa Tuterako El Culebrete gunera eramateko. Han tratamendu bat egiten zaio zabortegian lurperatu aurretik.

Garbigunetik ere pasatu ziren ikasleak. Hara eramane behar diren hondakin bereziak ezagutu zituzten: jostailuak, altzariak, pilak, tonerrak, olioak, tresna elektrikoak, pintura zaharra...

900 730 450

Telefonora hots egin daiteke hondakin kudeaketari buruzko edozein zalantza argitzeko edo galdera egiteko.

Mugimendu feministak erasoak salatu ditu

Erasoak salatzen eta aldarri feministak kaleratzen jarraituko dute

ALTSASU

Sestaon eta Iruñean izandako erailketa matxista eta eraso trans-fobia salatuz, Altsasuko talde feministek hainbat pankarta jarri zituzten herrian. Altsasuko mugimendu feministako kideek gaztigatu dutenez, "antza denez, salaketek norbaiten ezinegon piztu eta lotsarik gabe pankartakokak moztu zituen". Jardun hori "mugimendu feministako eragileen kontrako erasotzat" hartu dute. Altsasuko mugimendu feministako kideek gaineratu dutenez, ez da halakorik gertatzen den lehen aldia.

Altsasuko mugimendu feministako kideek nabarmendu dutenez, "hamaika dira gizarte heteropatriarkal kapitalistaren ondorioz gure gorputzek eta biziek pairatu behar dituzten indarkeriak. Horren aurrean, mugimendu feministak egiten duen lana garrantzi handikoa da harreman, balio-sistema eta biolentzia heteropatriarkalei aurre egiteko ehuna osatzen dugulako. Autodefentsa feministaz, elkarlanean kolektiboki eta bizitzak erdigunean jarritzak babes-tuko gara honen aurrean beti". Esan dutenez, "agerian geratzen da lanketa eta borroka feminista ezinbestekoa direla herrian".

Kontseilu Sozialista Sakana sortu dute

"Gaitasun sozialistak areagotzeko, antolakuntzaren indarra lurraldean hedatzera gatz"

SAKANA

Kontseilu Sozialista Sakanako (KSS) kideek aurkezpenean jakinarazi dutenez, "klaserik eta zapalkuntzarik gabeko gizarte baten beharrak garamatza komunistok antolatzen". Euskal Estatu Sozialista dute helburu. Horregatik sortu dute Kontseilu Sozialista Sakana, "gaitasun sozialistak areagotzea helburu. Antolakuntzaren indarra lurraldean eratzen gatz". KSSkoen helburua da "langileria iraultza prozesura batzeko hainbat arlotan lan lerroak irekiko ditugu. Erreferentzia politiko eta ideologiko sozialista izateko eta hainbat belaunaldi eta sektoretako kideak borrokara batzeko anbi-zioz ariko gara". Eta adibide gisa oinarritzko beharrianak betetzeko Gogor jarri dute, Larraungo eta Sakanako KSSek elkarlanean garatua.

KSStik adierazi dutenez, "jasaten ari garen krisi egoera ez da soilik ekonomikoa, bizitzako esparru guztiei eragiten die kapitalismoari berezko zaion egiturazko krisi honek". KSSkoen iritziz, pandemiak "proletalgoaren osasun baldintzak okertzeaz aparte, bizi dugun krisi kapitalista bizkortu eta gogortu du". Testu inguru horretan "burgesiak oinarritzko eskubide zibil eta askatasun politikoen murrizketak gauzatu du, alternatiba politikoa ekidin nahian". Haien iritziz, "krisiak kapitalistaren zimenduak kolokan jartzen dituen honetan, aukera irekitzen da arrakaletan eragin eta osotasun berri bat artikulatzeko". Esan dutenez "proletalgoa burgesiaren eta haren Estatu aparatuekiko menpeko da, ez du bere beharri-zanetara egokitutako programarik". Horregatik, "ezinbestekoa da esparruka gaitasun propioak handituz, sozialismoaren erakuntzan bidea egin eta posizioak hobetzen joatea".

Pentsio sistema publikoaren defentsan kalean

Toledoko Itunaren gomendioen eta azken lan eta pentsio sistema erreformen kontra egin dute

SAKANA

Sasoiak eta Sakanako Pentsiodunen, Erretiratuen eta Adinekoen Koordinakundeak pentsio duinen alde 150 pertsona mobilizatu zituzten larunbatean. Aka-beran gaztigatu zuten, "pen-

tsioen bermea eta nahikotasuna lortzeko hiru neurri" ezarri behar dira. Alde batetik, "pentsioen kutxa jasaten ari den espolioazioarekin bukatzea. Horretarako, Estatuak bere egitea aurrekontuen bidez berari dagozkion

hamarnaka mila milioiko gastuaz, eta hori ez kargatzea Gizarte Segurantzaren kontuan".

Bestetik, "diru-sarrerak enplegu gehiagorekin eta hobearekin bermatzea. Hau da, langileok gure lanarekin sortzen dugun aberastasuna ekitatez banatu". Eta, azkenik, "Estatua sistemaren bermatzaila den neurrian, behar izanez gero, ekarpenak, transferentziak egin ditzala pentsio guztien nahikotasuna bermatzen dadin". Aldarrikapenak bermatzeko eskatu zieten gobernuei.



Pentsio duinak aldarrikatzen.



Plazako frontoi zaharrerako egindako bi estalpe proposamenak. ARBIZUKO UDALA



larra da eta 306 metro karratuko azalera hartuko luke. Burnizko 8 zutabe borobilen gainean jasoko zen estalpea. Teiladuraren egitura nagusia metalezkoa litzateke, egurrezko zenbait zatirekin. Teilatua 16 hiruki inklinatutan banatuko litzateke, "m" itxura sortuz. Hiruki horien erditik eguzki argia pasatuko litzateke.

Beste bat

Arbizuko Udalak aurreratu du eskola zaharren eraikinaren etorkizuna erabakitzeke beste parte hartze prozesu bat egin nahi duela. Elhuyar enpresaren laguntzarekin parte hartze prozesua egingen da irailean eta las-tailean. Orduan erabakitzen dena heldu den urteko lehen sei hila-betekoan gauzatu nahiko luke Arbizuko Udalak.

Frontoi zaharrear estalpea jarri edo ez?

Hori erabaki beharko dute arbizuarrek martxoaren 14an egingen den kontsultan. Erantzuna baiezkkoa bada, udalak proposatutako bi estalpe aukeren artean zein duten gustukoaren zehaztu beharko dute

ARBIZU

Arbizuko plazan metalezko zutabe handi bat dago. Behar den bakoitzean zutabea erdigune hartuta, lonazko estalpe bat jartzen du Arbizuko Udalak. Jarri eta kenduko estalpe horrek eguraldiaz babesten ditu arbizuarrek herriko egun handitan. Baina egunerokoan eta festetan eguraldiaz babesteko estalpe finko baten beharra sumatu dute Arbizun. Gainera, estalpe finkoak hainbat ekitaldi hartzeko aukera emanen lieke arbizuarrei.

Horren jakitun, udalak bi proposamen landu eta herri galdeketa deitu du. Bi proposamenetan aurreikusten da plazaren zati bat aire librean gelditzea eta frontoiaren aldean estalpea jasotzea. Martxoaren 14an arbizuarrek udalak egindako bi galdera erantzuteko aukera izanen dute: frontoi zaharra tapatzeko, estalpearen beharra ikusten duzu? Estalpea jartzekotan, zein aukera duzu nahiago? Arbizuarrek bi galderak erantzun

ahal izateko udalak informazioa banatu die etxera. Herritarrek etxean jaso duten txostenean arkitektoek prestatutako bi estalpe aukerak daude. Baita parte hartze prozesuari buruzko informazioa. Estalpea jartzea erabakitzen bada, aurreko jarri nahi luke udalak.

A aukera

Udaletxe parean zegoen frontoi zaharrear espazio bat hartzen du, plaza libre utziz. Kale Nagusiaren paralelo jasoko litzateke estalpea, 19,70 metro luze eta 14,50 metro zabal, guztira 285 metro karratuko azalera hartuko lukeen "lauki luzea". Zur ijiztuzko dozena bat zutaberen gainean jasoko litzateke estalpea. Teilatuak egurrezko egitura izanen luke akustika hobetzeko. Teiladuraren erdian eguzki argia pasatzeko plakak jarriko litzateke. Barruan 3 eta 5 metro arteko altuera legoke. Estalpea Lorian etxetik 3,5 metrora jasoko litzateke, Fentxon etxetik 9,5

m-era eta Uhalde kaleko izkina-ko etxera 8,5 m-ra. Aukera honek

Uhaldeko oinezkoendako eskailera, arrantaren trazadura eta bankuen eremua mantenduko luke, eta ibilgailuen pasabide kontrolatua baimenduko luke.

B aukera

Plaza guztia maila berean jarriko litzateke lehenik. Horretarako, plaza gurutzatzen duen bideko arrantpa Uhalde kalerantz eramane beharko litzateke. 17,5 metroko zabalerako aldeak dituen "lauki" itxurako estalpe bat jasotzea aurreikusten du aukera honek. Berez, oktogono erregu-

Egutegia

- **Otsailak 15-19** Etxez etxe informazio banaketa.
- **Otsailak 20-28** Idatziz, galderak udaletxean edo partehartzea@arbizu.eus-era bidali.
- **Martxoak 8-9** Boto paperen eta galderen erantzunen banaketa.
- **Martxoak 14** Botoa emateko aukera izanen dute 16 urtetik gorakoek.

2019, 2020 eta 2021 jaiotako haurrentzat Orduetgiak eta zerbitzuak aukeran		Arbizu eta Lakuntzako udal haur eskola Uhalde kalea z/g, 31839 Arbizu 948 567 009 info@kattuka.com www.kattuka.com
Haurraren garapen integrala eta banakako erritmoak aintzat hartzen dituen proiektua		Zatoz Kattuka ezagutzera datorren Otsailaren 25ean 16:30etan. Bertaratzea baieztatzea beharko da
	Haur hezkuntzako profesional taldea etengabeko prestakuntzean Hezkuntza proiektu propioa eta berritzailea	
Garapena, helduarekin harremana eta jolas librearen gure ardatza	Aurre-matrikula Martxoaren 1etik 15era Matrikula Maiatzaren 24tik 28ra	

Egin z bazk Hilabetean Bazkidetu orain eta



**IZASKUN
BENGOETXEA DELGADO**
IRAÑETAKO
GUAIXE BANATZAILEA



**LIDIA
GARZIANDIA RAZKIN**
LIZARRAGABENGOAKO
GUAIXE BANATZAILEA

**JAIONE
CALVO MUNARRIZ**
ZIORDIKO
GUAIXE BANATZAILEA



zaitez kide!

€1en truke

a jaso **oparitxo bat!**

Informazio gehiago:

948 564 275 | 618 882 675

admin@guaixe.eus



**OLGA
ALBIZTUR LASA**
OLAZTIKO
GUAIXEA BANATZAILEA

**JOKIN
LANZ BETELU**
ARRUAZUKO
GUAIXE BANATZAILEA



Irurtzun, Etxeberri,
Egiarreta, Etxarren, Zuhatsu,
Satrustegi, Hiriberri, Ihabar,
Irañeta, Uharte Arakil, Arruazu,
Lakuntza, Lizarragabengoa,
Arbizu, Unanu, Dorrau, Lizarraga,
Etxarri Aranatz, Bakaiku,
Iturmendi, Urdiain, Altsasu,
Olazti eta Ziordiko

**Guaixeren
banatzaile sareari**

*eskerrik asko
egiten duzuen
lanagatik!*



Kattalingune kirol eragileei aurkeztuko diote

KIROLDEGIA Kattalingune zerbitzua aurkeztuko diote Sakanako kirol entrenatzaile, arbitro, epaile, kirolari eta kirol eragileei. Lakuntzako Udaleko Batzar Gelan izanen da, otsailaren 25ean, ostegunarekin, 16:00etan. Aurretik izena eman behar da

Kattalingune Nafarroako Gobernuaren LGTBI+ (Lesbiana, Gay, Transexual, Bixesual, Intersexual eta +, pluraltasuna azaltzeko) informazio eta arretarako zerbitzu publikoa da, sexologian eta generoan espezializatutako langileek artatua. Iruñean eta Tuteran egoitzak zabaldu ondoren, ikasturte honetan Sakanan ere presente dago, eta Sakanan eskura dugun zerbitzu hori ezagutarazi nahi du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak.

Otsailaren 22a baino lehen eman behar da izena

“Otsailaren 19a LGTBI+ fobiaren kontrako eguna da kirol arloan, eta egun horri keinu eginez, Sakanan lanean hasi berri den Kattalingune LGTBI+ harrera bulegoa Sakanako kirol eragile guztiei aurkeztu nahi diegu” azaldu dute Kirol Zerbitzutik. Aurkezpena Lakuntzako udaletxeko Batzar Gelan egingen da, otsailaren 25ean, osteguna,



Entrenatzailea eta ikasleak, campusean.

16:00etatik aurrera, eta ekitaldia Sakanako kirol entrenatzaile, arbitro, epaile, kirolari eta kirolarekin zerikusia duten pertsona guztiei zuzendua dago. Segurtasun neurriak jarraituz, tokia mugatua da eta aldeztu aurretik

izena eman behar da Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 468 866, kirolak@sakana-mank.eus), otsailaren 22a baino lehen.

Aurkezpenean parte hartzerantz animatu dituzte kirol eragile guztiak. “Sexu eta genero aniztasunari buruz solastuko gara, orientazioaz eta identitateaz eta horretaz gain, kirolean LGTBI+ errealitatea zein den elkarbanatzeko aukera izango dugu” gaineratu dute Kirol Zerbitzutik. Halaber, aurkezpena doazen kirol eragile guztiek ortzadarren koloretako lokarriak jasoko dituzte opari.

Kattalingune Sakanan

Kattalingune zerbitzua Sakanan ostegunero dago lanean, 11:00etatik 19:00etara, Irurtzango kultur etxean eta Lakuntzako udaletxean, astero txandakatuz. Harremanetarako: iparmendebaldea@kattalingune.org e-posta edo 678 266 865 telefonoa.



Lagun Artearen partida.

Lagun Arteak Iruña izango du aurkari igandean Taxoaren

FUTBOLA Talde lakuntzarrak Garesekin bana berdinduta mustu du 1. Maila Autonomikoa

Lagun Arteak izan da futbol denboraldiari ekin dion talde sakan-dar bakarra. Lakuntzako taldeak 1. Maila Autonomikoa mustu zuen Gares taldea etxean hartuta. Giro polita izan zen Zelai Berriin, osasun neurriak beteta.

Geldialdia nabaritu zen

Aitortu beharra dago Garesek Lagun Arteak baino hobe jokatu zuela. Hala ere, partida lehiatua izan zen. Lagun Arteak 29. minutuan aurreratu zen Yonathan Davila kapitainak penaltiz sartutako golarekin. Bigarren zatiko lehen jokaldian berdinketa

lortu zuen Garesek, eta kanpotarrek eraso etengabea hasi zuten, garaipena lortu nahian. Baina Lagun Arteak ongi eutsi zuen eta puntu banaketarekin despiditu zen partida. Aipatzekoa da jokalariei ia urte bat lehiatu gabe egon direla nabaritu zitzaiela, askok lehertuta bukatu baitzuten.

1. Maila Autonomikoko 1. multzoko liderra Avance Ezkabarte da (3 puntu). Lagun Arteak 5. postuan dago, puntu batekin. Igandean lakuntzarrak sailkapenean hirugarrena den Iruñaren kontra ariko dira, Taxoaren, 16:15ean hasiko den partidaren.



"Zure neurria"

ERAIKUNTZA GEHIGARRIA

2021 martxoak 26

(Publizitatea martxoaren 15erako kontratatu)
948 564 275 (1 luzapena) | 661 523 245

Xotako nesken taldeak martxan

ARETO FUTBOLA Asteburuan Emakumezkoen Senior Mailako Txapelketa hasi zen. Aurten Xotak bi talde ditu. Xotak Txantrearen kontra husna berdindu zuen, eta Xota B-k Orvina B-ren kontra 9 eta 0 galdu zuen. Xotak Mutilbera izango du aurkari igandean 10:00etan Arangurenen, eta Xota B-k Gazte Berriak taldea hartuko du larunbatean 12:00etan Irurtzunen.



Osasuna Magna Xota, Jaenetik Tuterara

ARETO FUTBOLA Bihar Jaenen kontra ariko da eta asteartean atzeratutako derbia jokatu du

Osasuna Magna Xotak gaur Andaluziako bidea hartu du, larunbatean 1. Mailako Ligako 21. jardunaldian Jaen Paraiso Interior taldearen kontra jokatu baitu, 18:30ean. Talde irurtzundarraren asmoa jokoan dauden hiru puntuak lortzea da, sailkapenaren goiko aldera begira jartzeko. Liga erabakitzeke Play-Offak sailkapeneko lehen 8 taldeek jokatzeko dituzte, eta egun sailkapenean 12. postuan dago Xota (18 puntu), bi partida gutxiagorekin. Beraz, lehenbailehen puntuatu beharrean dago Imanol Arregiren taldea. Partida zaila dute aurretik, baina motibazioa handia da.

Asteartean zeresana eman duen derbia jokatu dute berdeek Andaluziatik bueltan, asteartean Tuterako bidea hartu dute Imanol Arregiren mutilek, Aspil-Jumpers Ribera Navarraren kontra atzeratutako partida polemikoa jokatzeko. Talde nafarren arteko derbia ilbeltzaren 4an zen jokatzekoa, baina Osasuna Magna jokalariei batek positibo eman zuen eta partida atzeratzea erabaki zuen epaileak. Horrek soka luzea ekarri zuen, errekurtsoak tarteko, baina asteartean jokatu dela erabaki zuen epaileak.



2019ko Altsasuko Duatloiko emakumeen irteera. Igandean Dantzalekutik aterako dira Altsasu Duatloi Kroseko partaideak. ARTXIBOA

Dena prest Nafarroako Duatloi Txapelketarako

DUATLOIA Igandean Altsasuko I. Duatloi Krosa jokatu da Dantzalekun, Nafarroako Duatloi Txapelketa izanen dena. Goizeko 10:00etan Nafar Kirol Jolasak hasiko dira, 11:00etan erreleboko proba eta 12:00etan Nafarroako Txapelketa

Maidet Betelu ALTSASU

Dantzalekuk puri-purian jarraitzen du. Aurreko asteko Altsasuko Krosari, igandean jokatu den Altsasuko I. Duatloi Krosak hartuko dio txanda. Nafarroako aurtengo lehen duatloi proba izango da, eta guztira 200 kirolaritik gora bilduko dira. Duatloia bueltan da.

Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulatek azaldu duenez, parte hartzea oso ona izanen da. “Nafar Kirol Jolasetan, hau da, kategoria txikietan, 60 duatleta ariko dira kategoria ezberdinetan; erreleboen proban—kirolari batek korrikako segmentua egitea eta besteak bizikletakoa—, 30 bikotek eman dute izena eta proba nagusi-

sian, hau da, Nafarroako Duatloi Txapelketan, 65 duatletek hartuko dute irteera. Kontuan hartuta soilik Nafarroako kirolariak aritu ahal direla, partaide asko dira eta oso kontentu gaude”. Kanpoko kirolari askok deitu omen diete. “Jende askok hots egin digu Madrildik, Kantabriatik, Errioxatik, ondoko probintzietatik... baina ezin da, eta soilik nafarrek parte hartu ahal izango dugu” nabarmendu du triatleta altsasuarrak.

Aurreko asteko Altsasuko krosak erakutsi zuen osasun eta segurtasun neurriak beteaz posible dela kirol proba bat antolatzeko, nahiz eta horrek antolakuntzari lan gehiago eskatu. Nafar-

roako Txapelketa denez, Sakana Triatloi taldea eta Nafarroako Triatloi Federazioa arduratu dira antolakuntzaz. Dantzalekuko kirol gunean soilik duatletak, epaileak eta antolatzailak sartuko dira, segurtasun burbuila egiteko. Boxak goiko futbol zelaian egongo dira. Ikusleek zirkuituan jarraitu ahal dituzte probak, eta maskara janztea eta segurtasun distantziak mantentzea eskatu zaie antolakuntzatik.

Ibilbide ederra, lohi gutxiarekin Dantzalekun eta Usolarrairen barna prestatutako zirkuituan gauzatuko da proba. Goiztiarrenek Nafar Kirol Jolasetako neska-mutilak izango dira; goizeko

10:00etatik aurrera hasiko dira kategoria ezberdineko probak. 11:00etan Erreleboen Altsasuko I. Duatloi Krosari emango zaio hasiera—30 bikote, tartean sakandar asko— eta 12:00etan Altsasuko I. Duatloi Krosean, Nafarroako Duatloi Txapelketan ariko direnak abiatuko dira.

Ibilbideak aurreko asteko Altsasuko kroseko eremu bat hartuko du. Sprint distantzian jokatu da. Hasieran duatletek 4 km osatu beharko dituzte Dantzalekuko paraje zoragarrietan barna, eta gero bizikleta hartu eta San Pedro zelairantz joko dute, 12 km osatzeko. Bukaeran 2 km egin beharko dituzte. “Zirkuitu oso polita da, Usolarraingo merenderotik barna ibiliko dena. Aste osoan eguraldi ona egin duenez, ez dago lokatz askorik, eta igandeko giro oso polita espero dugu” gaineratu du Sergio Garcia de Eulatek. Ibilbidea Wikiloc-en kontsultatu daiteke.

Sakandar ugari parte hartuko du Altsasuko Duatloi Krosean. Horregatik antolatu zuten errelebo lasterketa, bertakoen partaidetza sustatzeko. Sakana Triatloi Taldekoak igandean aritzeko gogotsu daude; ordezkaritza polita izango dute. Bestalde, guztia antolatzeko 25 pertsonako lantaldea ibiliko da igandean lanean.

Streaming bidez

Aurreko asteko krosa bezala, igandean jokatu den Altsasuko I. Duatloi Krosa streaming bidez jarraitzeko aukera izango da, Nafarroako Triatloi Federazioaren esku. Kamara finko batek, dron batek eta bizikleta batean jarriko den kamara batek hartutako irudiekin eskainiko da proba, eta ziur irudiak ikusgarriak izanen direla.

Goizeder Beltza eta Jon Irañeta Urrezko finalerdietan

HERRI KIROLAK Urrezko Binakako Aizkora eta Banakako Harri Jasotze finalerdiak jokatu dira igandean Leitza

Egur Sportek antolatutako Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako bigarren finalerdia eta Urrezko Banakako Harri Jasotze Txapelketako bigarren finalerdia igandean jokatu dira, Leitzako Amazabal pilotalekuan, 12:00etan.

ETB1 telebista kateak igandean eskainiko du jaialdia, 16:00etan.

Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketan 9 bikote lehiatzen ari dira. Lehen finalerdian Ibai Soroa eta Txomin Amundarain sailkatu ziren martxoaren 14an

Azpeitiako Izarraitzen jokatu den final handirako. Bigarren finalista Leitzako finalerdiatik aterako da. Hiru biko ariko dira lehian—Goizeder Beltza-Hodei Ezpeleta, Joxean Etxeberria-Unai Otaegi eta Luis Polanco-Jon Telletxea—, eta lanak azkarren egiten dituen bikoa sailkatuko da finalerako. Hirugarren bikotea otsailaren 27an Mallabian jokatu den finalerdiatik aterako da. Bertan lehiatuko dira Iban Resano dorrobarra eta Juanjo Lopez Azpilikueta.



Goizeder Beltza. ARTXIBOA

Irañetaren aukera

Urrezko Harri Jasotze Txapelketan 10 harri jasotzaile ari dira lehian. Lehen finalerdian Beñat Telleriak lortu zuen finalerako txartela (83 jasoaldi), eta igandean aterako da bigarren finalista, Leitzan. Jon Irañeta egiaurretarra, Inhar Urruzuno eta Iñigo Eizagirre “Eiza” lehiatuko dira. 100 kiloko koparekin, 100 kiloko kubikoarekin eta 100 kiloko bolarekin bi minutu eta erdiko saioa egin beharko dute. Ea Irañetaren finaleko txartela lortzen duen.

Nagore eta Carrera Dantzalekun txapeldun

ATLETISMOA Israel Arbizu eta Izaskun Beunza 34. Altsasuko Krosean lehen sakandarrak izan ziren. Proba herrikoian Abdelkader Louaar eta Haizea Ramirez de Alda gailendu ziren, eta Nafar Kirol Jolasetan Dantzalekuko neska-mutikoak bitan igo ziren podiumera

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Eguzkia lagun, Dantzalekun eta Usolarrainen barna prestatutako zirkuitu zoragarrian jokatu zen 34. Altsasuko Krosa, aldi berean Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa izan zena. Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak eta Nafarroako Atletismo Federazioak antolatu zuten, eta osasun arau guztiak beteaz kirola egin daitekeela erakutsi zuten.

Proba guztiak kontuan hartuta, 700 korrikalari inguruk gozatu ederra hartu zuten Dantzalekun. Lasterketak streaming bidez eskaini zituen Nafarroako Atletismo Federazioak.

Dantzalekuri zorionak

Nafarroako Atletismo Federazioako presidente Rodrigo Gonzalez Dantzalekun izan zen. Atletismoak une gozoa bizi duela nabarmendu zuen. "Pandemia dela eta, guraso askok euren seme-alabak atletismoan izena emateko hautua egin dute" azal-



Makina bat sakandarrek hartu zuten parte kros herrikoian.

du zuen. Halaber, Dantzaleku Sakana kluba zoriondu zuen Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa antolatzeke izandako prestutasunagatik. "Dantzalekuko atletismoa eta kirola bizi egiten dute. Altsasu beti

izan da erreferentzia atletismoan. Halaber, Dantzaleku Sakana tradizio handiko kluba da, lan handia egiten duen kluba. Korrikalariak oso gustura aritu dira gaur eta guztia ongi aterada" azpimarratu zuen.

Krosa antolatzeke Dantzaleku Sakana Klubak 25 boluntario ingururen laguntza izan zuen. "Lan talde honi eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotzez, guztia ongi ateratzeko lan itzela egin zutelako" azaldu du Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko kide Peio Bergarak.

Louaar eta Ramirez de Alda azkarrenak proba herrikoian

Proba goiztiarrena Altsasuko Krosko proba herrikoia izan zen. Goizeko 09:00etan, tarteka oraindik lainoa zegoela, Dantzaleku pistetatik atera ziren korrikalariak. Antolakuntzak prestatutako zirkuituari hiru itzuli egin zizkioten, 5.500 m osatuz. 70 korrikalari inguruk hartu zuten parte eta Abdelkader Louaar izan zen azkarrena, Mikel Astiz ihabardarraren eta Pello Lopezen aurretik; Dantzaleku Sakanako Jokin Bereziartu altsasuarra laugarren sailkatu zen. Emakumezkoetan Haizea Ramirez de Alda altsasuarra gailendu zen, Sara Modregoren eta Maialen Eliaren aurretik.

NKJ: 500 korrikalari eta Dantzalekuren bi podium

Segidan kategoriatik txikikoen Nafar Kirol Jolasak jokatu ziren. 500 korrikalari inguru lehiatu ziren guztira, Nafarroako hainbat txokoetatik etorrira, gogo biziz, 10 kategoriatan banatuta. Tartean Dantzaleku Sakana Atletismo Eskolako neska-mutikoek

Sakandarrak

Sakandarrak 34. Altsasuko Krosean (Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa, 8.900 m)

Emakumezkoen absolutua	
1. Alicia Carrera	34:17
8. Izaskun Beunza	37:15
19. Leire Estarriaga	39:39

Gizonezkoen absolutua	
1. Javier Nagore	29:36
8. Israel Arbizu	31:03
23. Sergio G. Eulate	32:54
27. Ivan Sobredo	32:59
29. Iraitz Senar	33:06
34. Adur Senar	33:27
35. Asier Estarriaga	33:42
36. Mikel Berdud	33:47
41. Aritz Etxeberria	34:17
54. Emilio Guirado	36:20
60. Isidro Asurabarrena	36:40

Nafar Kirol Jolasak

10 urtez azpiko emakumeak
1. Dantzaleku.

10 urtez azpiko gizonak
1. Cantera. 4. Dantzaleku.

12 urtez azpiko emakumeak
1. Ribera Atletico. 6. Dantzaleku.

12 urtez azpiko gizonak
1. Hiru Herri. 2. Dantzaleku.

14 urtez azpiko emakumeak
1. Gana.

14 urtez azpiko gizonak
1. Pamplona Atletico.

16 urtez azpiko emakumeak
1. Ribera Atletico.

16 urtez azpiko gizonak
1. Hiru Herri.

18 urtez azpiko emakumeak
1. Hiru Herri.

18 urtez azpiko gizonak
1. Hiru Herri.

*Oharra: Altsasuko Kros Herrikoiko sailkapena ez dugu

"la urte oso bat neraman lehiatu gabe; oso pozik nago"

HAIZEA RAMIREZ DE ALDA POZUETA ALTSASUKO KROS HERRIKOIKO IRABAZLEA

Aurreko igandean Altsasuko Krosko proba herrikoian aritu zinen. Urteko lehendabiziko proba izan zen zuretzat?

la urte oso bat neraman lehiatu gabe, oso proba gutxi antolatu dira orain arte. Kros hau antolatuko zela ikusi nuenean, eta gainera Altsasun, ez nuen zalantzarik izan bertan izena emateko. Gogotsu nengoan, ilusionatuta. Halakoak antolatzen hasteko gogotsu gaude.

Nahiz eta zuek korrika egitera atera, lasterketarik ez badago ez duzue berdin entrenatuko.

Ez. Azkenean ni nire kabuz korrika egitera ateratzen naiz, mendira ateratzen naiz, baina proba batean edo lehiaketa batean pentsatu gabe. Nire buruari esfortzu gutxiago eskatzen diot. Txapelketak izaten

dira nire benetako entrenamendua, hor estutzen dudalako benetan nire burua.

Altsasuko kros herrikoirako zein aurreikuspen zenituen?

Besterik gabe, lasterketan parte hartzea. Ez nuen beste aurreikuspenik. Ez nuen irabaztea espero, normalean halako kros laburretan edo distantzia motzetan ez naizelako ibiltzen. Distantzia luzeak, mendikoak, gehiago gustatzen zaizkit. Ez nuen irabaztea inola ere espero.

Eta aurrean zeundela konturatu zinenean zer?

Halako distantzia motzetan hasieratik azkar ateratzen gara, neurrian baina azkar. Hasieratik sufritzen hasi nintzen, egia esan. Bigarren emakumea nintzen, eta aurre aurrean nuen lehenengo. Lasterketa osoa

bion arteko lehia izan zen. Bigarren bueltan aurreratu nuen eta bera nire atzean geratu zen, gertu. Hor ibili ginen, lehia estua izan zen eta ni sartu nintzen lehena, segituan bera nuela.

Irabazterakoan zer sentitu zenuen? Poztasuna?

Bai. Nahiz eta helburua irabaztea ez izan, irabazteak beti poza ematen du, eta gainera herrian bada, are gehiago. Katealde etxeko produktuen lote bat jaso nuen opari eta oso pozik geratu nintzen.

Goizeko 09:00etan abiatu zen Altsasuko kros herrikoia. Tarteka laino pixka bat zegoen zenbait tokitan. Horren goizter aritzeak mesede egin zizun?

Hasiera batean aurreikusia zegoen kros herrikoia eguerdi aldera izango zela; izena

ematerakoan hori esan zidaten. Baina egun batzuk lehenago goizeko 09:00etara aurreratu zuten eta, egia esan, hasieran nolabaiteko pereza pixka bat eman zidan ordu erdiko proba batetarako horren goiz joan behar izatea. Baina ondoren eskertu nuen, lehenak izan ginenez, gu izan ginelako bertatik pasatzen lehenengoak, eta orduan ez zegoen lokatz gehiegi. Ondoren, federatuak atera zirenean, ibilbidea okerrago zegoen.

Ibilbidea oso polita zen: Dantzaleku, Usolarrain... Dantzalekuko prestatutako zirkuitua gogorra egin zitzaizun?

Gogorra egin zitzaidan baina erritmoarengatik, distantzia motza zenez erritmoa azkarragoa zelako, bestela, ibilbidearengatik ez. Ohituta nago bertatik ibiltzen, eguneroko ibilbidea da niretzat. Lokatza zegoen, baina uste baino gutxiago. Korrika egiteko ez zen deserosoa. Beraz, alde horretatik ongi.

parte hartu zuten eta oso maila ona eman zuten, bi aldiz igo baitziren podiumera. 10 urtez azpiko mailan emakumezkoetan Dantzaleku taldea gailendu zen, merezimendu osoz, eta 12 urtez azpiko gizonezkoetan Dantzaleku bigarren sailkatu zen. "Dantzalekuko gaztetxoak oso ongi aritu ziren. Harrobia indartsu dator, eta hori poztekoa da oso" aipatu du Peio Bergarak.

Nafarroako Kros Luzeko

Azkenik, federatuen mailako 34. Altsasuko Krosa jokatu zen, aldi berean Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa izan zena. 8.900 metroko lasterketa izan zen, eta korrikalariak zirkuituari 5 buelta eman behar izan zizkieten. Ez zen sorpresarik egon eta emakumezkoetan Alicia Carrera (34:17) eta gizonezkoetan Javier Nagore (29:36) gailendu ziren. Biek aurreko urteko titulua berritu zuten. Nafarroako Atletismo Federazioak atleta nafarrek Altsasun egindako lana aintzat hartuko du Espainiako Kros Txapelketa Luzeko Nafarroako ordezkari izateko hautatzeko.

Dantzaleku, mitikoa

Alicia Carrerak Nafarroako Kros Luzeko bere hirugarren txapelketa lortu zuen Dantzalekun, sailkatu ziren 20 emakumezkoen artean gailendu eta gero. "Dantzaleku mitikoa da. Gozatu dut, baina kosta egin zait, bi 3.000 metroko jarraian daramatzada-

la nabaritu baitut" aitortu zuen. Maite Gonzalez oso gertu sartu zen (34:51), bera izan zen lehen 23 urtez azpiko korrikalaria, eta Ana Llorensek podiuma osatu zuen (35:54). Izaskun Beunza olaztiarra izan zen lehen sakan-darra, helmugan 8. postuan sartu eta gero (37:15).

Gizonezkoetan Javier Nagore proba osatu zuten 82 korrikalarien artean azkarrena izan zen (29:36). Dantzaleku gustuko duela aitortu zuen Nafarroako txapeldunak, bere ezaugarriak ongi egokitzen zaiola. Helmugarako buelta eta erdi falta zenean erritmoa bizkortu, tartea atera eta bakarrik iritsi zen helmugara. 13 segundo atera zizkion Marcos Yanizi, eta Ayrton Azkuek osatu zuen podiuma (30:05). Israel Arbizu etxarriarra izan zen lehen sakandarra, helmugan 8. postuan sartu eta gero (31:03).

Bestalde, aipatzekoa da 20 urtez azpiko Nafarroako txapelketan aritu ziren korrikalariak, 5 emakumezko eta 14 gizonezko, 5.500 metro osatu behar izan zituztela eta Sara Prados (21:27) eta Hamza Bouazzaoui (18:37) gailendu zirela.

"DANTZALEKUKO HARROBIA INDARTSU DATOR, ETA HORI POZTEKOA DA" PEIO BERGARA



Giro oso polita izan zen Dantzalekun. Atletismoaren festa izan zen, eta txikiak, helduek bezala, dena eman zuten.



Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko txikiak Nafar Kirol Jolasetan aritu ziren. DANTZALEKU SAKANA

Mendi lasterketetan aritzen zara. Lasterketak antolatuko direla entzuten da. Hala izango dela uste duzu?

Pasa den astean aurtengo Nafarroako Mendi Lasterketen egutegia atera zen eta lehenengo lasterketak maiatzean hasiko omen dira. Ikusiko dugu. Igandean ikusi genuen neurriak mantenduta gauzak antolatu ahal direla, baina ikusiko dugu ea jendea probak antolatzea animatzen den. Izan ere, hori oso garrantzitsua da, eta eskertzekoa da Dantzalekukoekin zuten lana, hori baita behar dena: jendea probak antolatzea animatzea. Egun, ohikoa baino lan gehiago eskatzen du edozer antolatzeak. Espero dugu hemendik aurrera gero eta lasterketa gehiago antolatzea.

Altsasuko krosak hemendik aurrera beste txip horrekin entrenatzeko pizgarria eman dizue?

Nik, egia esan, ez dut txapelketetan pentsatzen. Hemendik aurrera eguraldia hobetzea eta eguna luzatzea, horrek



ematen dit ilusioa, eguna luzatzearekin batera naturalki gero eta gehiago entrenatzen dugulako. Lasterketak antolatzen badira, jakina, horrek ere lagunduko du gehiago entrenatzen. Baina aitortuko dizut nire helburua ez dela hori. Helburua kirola egitea da, eta batez ere mendian gozatzea. Horrek asetzen nau gehien.

Emakumeen Sakanako Atletismo Taldean aritzen zara oraindik?

Bai, urte askotxo daramatzat. Altsasun emakumezkoen atletismo klaseak hasi ziren eskaintzen ostiralean, emakumezkoetan artean kirola sustatzeko. Bertan hasi nintzen eta ostiraleko emakume talde bat elkartzen gara, oso gustura.

Hor eman zenituen atletismoko zure lehendabiziko pausoak?

Ez. Aurretik nire kabuz ibiltzen nintzen korrika, baina Sakanako Emakumeen Atletismo taldeak atletismoan jarraitzen lagundu zidan. Halakoak garrantzitsuak

dira. Iruditzen zait gero eta emakume gehiago ikusten direla kirola egiten, baina batzuei zaila egiten zaie bakarrik hastea, talde bat behar izaten dute, eta horrek laguntzen du.

Dantzalekuko klubeko kidea zara?

Bai, aurtun egin naiz taldekoa, kasualitatea (kar kar).

Eta nola ikusi zenuen zure kluba? Kategoria txikietan, kros herrikoian eta federatuen Nafarroako Kros Luzeko Txapelketan talde polita atera zuen Dantzalekuk.

Bai, ikusten da jendea badagoela, gaztetxo nahiko daudela. Dantzalekun aurtun gazteen talde berri bat sortu da, mendirako eta pistarako entrenatzen duena, eta gogotsu daudela ikusten da. Kirola egiteari beti ematen diot garrantzia, baina uste dut une honetan kirola egitea are garrantzitsuagoa dela osasun aldetik, bai osasun fisikoaren eta baita mentalaren aldetik. Oso garrantzitsua iruditzen zait.

"Etapara garaipen baten moduan ospatu dugu"

JORGE AZANZA EUSKALTEL EUSKADIKO ZUZENDARIA

TXIRRINDULARITZA Espainiako Vueltan aritzeko gonbidapenetako bat jaso du Euskaltel Euskadik. Talde laranja jak garai bateko tokia berreskuratzeko pauso handia eman du

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
UCI World Tour mailako 19 taldeez gain, 4 taldek lortu dute Espainiako Vueltan aritzea: UCI Pro Team mailako 2020ko talde liderra, Alpecin-Fenix, eta hiru talde gonbidatuk, Burgos-BH, Rural Kutxa-Seguros RGA eta Euskaltel Euskadi taldeek. Tamalez, Pablo Urtasun zuzendari duen Kern Pharma taldea gonbidapenik gabe geratu da.

Duela 8 urte Euskaltel Euskadik bere azkeneko Vueltan parte hartu zuen. Talde laranja berriro Vueltan egotea oso albiste ona dela diote txirrindulari zaleek, horrek taldeari sekulako bultzada emango diolako.

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeak aurten bere 10. Vuelta osatuko du. Juan Manuel Hernandez managerraren iritziz, gonbidapena jasotzea "motibazio eta harrotasun handia" da. "Gure lasterketarik garrantzitsuena da eta oso eskertuta gaude Vueltako antolatzaile den Unipublic-ekin, guranako duten konfiantzagatik. Urte guzti hauetan Vueltan talde gisa hazi egin gara" nabarmendu du. Rural Kutxa-Seguros RGA taldean profesional gisa aurten debutatu du Josu Etxeberria txirrindulari iturmendiarrak, eta Vueltan tokia izateko gogor lan egingo du.

Espainiako Vuelta abuztuaren 14tik irailaren 5era arte jokatu da. Aldaketa asko izanen ditu. Esaterako, aurten ez da Pirinioetatik pasako, eta Vuelta ez da Euskal Herrian sartuko. Burgostik abiatuko da, eta amaiera ez da Madrilan izanen. Aurten Santiagon despedituko da, Done Jakueren urtea, Xakobea, baita.

Zorionak Jorge, Vueltaren gonbidapena jaso izanagatik.

Eskerrik asko! Ilusionatuta nagoela esatea motz gelditzen da. Oso oso pozik nago. Taldea sortu zenetik hau da gure ametsa. Aurten Vueltara joateko esperantzak



Jorge Azanzak aitortu du Vueltako gonbidapena betetako ametsa dela. UTZITAKOIA

"VUOLTARA GURE IZAERA ERAKUSTERA JOANGO GARA, GOGOR LEHIATZERA; LAN ASKO DUGU AURRETIK"

bagenituen, baina antolatzaileen erabakia jakin arte beti zaude zalantza horrekin. Euskaltel Euskadiko txirrindularia nintzela Euskaltelen azkeneko Vueltan parte hartu nuen, duela 8 urte, eta Euskaltel Euskadi Vueltara itzuliko den honetan ere bertan egongo naiz, kasu honetan zuzendari gisa. Egi bihurtutako ametsa da, eta hau guztia posible egin duten guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkiet.

Euskadi Fundazioaren aurkezpenean esan zenuten aurtengo helburuetako bat garaipenetatik gertu egotea izango dela, UCI World Tour mailako proben gonbidapenak jasotzeko. Bada, gonbidapen oso garrantzitsuak jaso duzue jada, Vueltarena.

Bai. Esan beharra dut asteartea guretzat jai egun garrantzitsu bat izan zela. Ia garaipen baten moduan ospatu genuen. Orain

gelditzen zaiguna da gauzak ongi antolatzea, lan asko egitea eta Vueltan gure maila erakustea. Lan handia dugu aurretik.

Aurkezpenean aipatu zenuenez, Euskaltelen beste helburua harrobi lanarekin jarraitzea da.

Bai, harrobiko txirrindulariak egitura profesionala elikatzeke gure haztegiak dira. Aurten 300 gazte bilduko dira Euskadi Fundazioaren harrobiaren proiektura eta oso pozik gaude.

20 txirrindulari dituzu zure esanetara UCI Pro Team mailako Euskaltel Euskadi taldean. Aurkezpenean Xabier Mikel Azparren txirrindulariak esan zuen taldea oso indartsu ikusten duela, giro oso ona duzuela eta emaitza onak iritsiko direla. Nolako taldea da?

Talde oso konpentsatua dugu, orekatua, lanerako gogotsu. Helburua ahalik eta lan onena egitea da, garaipenetatik gertu egoteko. Ea gauzak ongi ateratzen zaizkigun, motibazio faltarik ez dugu. Vueltaz ari garela, aurtengo edizioa ezberdina izango da eta hara joango gara gure izaera erakusteko, gogor lehiatzera eta etapeetan ahalik eta hobe ibiltzera. Oso pozik gaude, zerbait polita egiteko itxaropentsu.



Zabaleta profesionaletako bere sasoirik onenean dagoela esan daiteke.

Jose Javier Zabaleta, Binakako lehen itzuliko onena

PILOTA Egun, txapelketako izar dirdiratsuenaren aurka atzelari etxarrendarra

Binakako Txapelketako hasierako ligaxkako lehen itzulia jokatuta, protagonista nagusia Jose Javier Zabaleta izan dela nabaria da. Etxarrengo atzelaria ikusgarri dabil, partida guztietan erakustaldiak bata bestearen atzetik eginez. Zabaleta profesionaletako bere sasoirik onenean dagoela esan daiteke. Jokoa kontrolatzen du, pilota oso gutxi galtzen ditu eta ez da ia partidatik ateratzen. Aspeko kirol teknikari Jokin Etxanizek azaldu duenez, "izango ditu egun argiagoak edo ilunagoak, baina uste dut historia-ko atzelaririk onenetako bat daukagula begien aurrean".

Aurreko igandean, Logroñon, harritzeko moduko agintea erakutsi zuen. 18 eta 22 irabazi zieten berak eta Elezkanok Olaizolari eta Rezustari. Pilota eskutik zein erraz ateratzen zitzaion ikustea txundigarria izan zen. Adarragan ez duela partida onik jokatu esan izan du Zabaletak, baina igandekoaren ondotik jada ezin du hori esan. "Eskuinarekin ahalik eta gehien astintzen saiatu naiz, pilota txisparekin ateratzen zitzaidan eta sentsazioak onak izan dira. Oso pozik gaude" aitortu zuen etxarrendarrak. Elezkano ere behetik gora egiten ari da. Zabaletaren nagusitasunaren aurrean, bigarren maila batean zegoen orain arte, baina bere izaera oldarkorra ateratu du. Binakako Txapelketako bikote faboritoena osatzen dute liderrek. Igandean, Eibarko katedralan, Ezkurdia eta Ladis Galarza izanen dituzte aurkari (17:00, ETB1).

Sakandarren arteko lehia polita izango da Astelenakoa.

Ezkurdia, jokoa berreskuratzera

Ezkurdia eta Ladis Galarzak aurreko ostiralean 22 eta 12 galdu zuten Urrutikoetxearen eta Imazen kontra. Hasieran parez pare ibili ziren, baina partidaren bigarren tartean Aspeko bikoak beheara egin zuen eta hutsa hutsaren atzetik pilotatzen hasi ziren. Orain igandean liderren kontra duten partida zailean dute burua. Bere jokoa berreskuratzera, hori da Ezkurdia eta Ladis Galarzaren helburua, horrela izango dutelako partidak aurrera ateratzeko aukera. Ladis Galarzak behetik gora egin du txapelketan, eta hori eta guztia beharrezkoa izango du une honetan onena den Zabaletari aurre egiteko. Ea katedralak nor goratzen duen.

Martijak eta Jakak hobetzeko esperantza dute

Julen Martijak eta Erik Jakak burua altxatu gabe jarraitzen dute. Aurreko larunbatean 15 eta 22 irabazi zieten Peña II.ak eta Albisuk Labriten, lehia oso estuan. Parez pare hasi ziren, baina Baikokoak gailendu ziren.

Gaur, Urdulizen, Altuna III.a eta Mariezkurrena II.a izango dituzte aurkari (22:15, ETB1), eta euren jokoa berreskuratzera eta maila ona ematea, hori da Jakaren eta Martijaren nahia. Bigarren itzulian lan hobe egiteko esperantza dute eta zulotik ateratu nahi dute. Gaur partida oso zaila dute, baina gogor saiatuko dira.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 19

ALTSASU Gazte agenda.

18:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ

Bi urte, lau hilabete eta egun bat film dokumentalaren emanaldia eta solasaldia.
18:00etan, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ

Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.**LAKUNTZA** Asanblada informatiboa: Martxoak 8 Emakume Langileon Nazioarteko Eguna.Prestatutako egitaraua ezagutzeko eta M8 eta genero problematikaren inguruko irakurketa laburra egiteko. LAGAK antolatuta.
18:30ean, plazan.**ARBIZU** Aldatzen laguntzen konpainiaren **Birritan bortxatua** antzezlan.

18:30ean, kiroldegian.

IGANDEA 21

ALTSASU. Aralarra ibilbidea eginen du Altsasuko mendizale taldeak.

08:00etan, egoitzatik.

ZIORDIA Maria Magdalena. Iruña-Veleia jardunaldia.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

El padre gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 19: 19:00
Igandea 21: 19:30**Mi niña gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Osteguna 25: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

La lección de alemán zineforum filmaren emanaldia
Igandea 21: 19:30**La chica del brazalete zineforum filmaren emanaldia**
Osteguna 25: 19:00**Hizlariak:** Nekane Jurado, Ana Maria Vazquez, Marisa Ventura, Elsa Farrus, Paulo Arrieta eta Ander Elgezabal. Izena ematea: irunaveleiamarxan@gmail.com. 20 euro; bazkariarekin 26 euro.
09:30etik aurrera, Amaraunan.**IRURTZUN** Zirika Zirkus konpainiaren **Zinemaz Blai** ikuskizuna.
17:30ean, kultur etxean.**ALTSASU** Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 22

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

PEOPLE ART FACTORY

ALTSASU Emakume malgaxearen indarra erakusketa birtuala. Abenduaren 29tik martxoaren 29ra. People art factory webgunean, <https://labur.eus/EmaMalgaxe>.**ALTSASU** Altsasuko herri inauterietako erakusketa: herri ihoteko batzordeak eta herriko ikastetxeetako guraso elkarteek antolatuta.


Otsailaren 9tik 21era. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna hasi aurretik eta igandetan 16:00etatik 20:30era Iortia kultur gunean.

**ZIORDIA** Sakanako Antimilitarista Taldearen eta intsumisioaren argazkien eta irudien erakusketa. Martxoaren 5era arte. 16:00etatik 20:00etara. Liburutegian.

ZORION AGURRAK

**Gorka Galarza**
Zorionak Gorka! 6 urte betetziakin batia ikesko dezu zortzikue eta dantzakiye dantzan!! Muxu asko ta izen zoriontsu zu egunien. Zuu famelikuek.

Eta ni ez naizue zorionduko?

948 564 275
ZORION@GUAIXE.EUS

C.A. OSASUNA VS SEVILLA C.F.

OTSAILAK 22, ASTELEHENA
21:00-23:00 **EUSKALERRIA IRRATIAREN BIDEZ**

(IRRATIKO KONEXIOA 20:45EAN)

euskalerriairratia

beleixe 107.3 FM

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

DEKOVEN NAVARRA

CARPINTERÍA DE P.V.C.

Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELA



Joxe Katarain Apaolaza

Eskerrak eman nahi dizkizuegu une latz hauetan gurekin egon zareten guztioi

Berriz elkar ikusi arte
Maite zaitugu

Exekoak

ESKELA



Joxe Katarain Apaolaza

Berriz ere mendi eta larre berrietan bertsotan elkartuko gara

Betirako gure bihotzetan

1969ko Lakuntzako kintoak

ESKELA



Joxe Katarain Apaolaza

Nun hago, zer larretan Zegamako artzaina, Mendi hegaletan gora Oroitzapen den gerora lhesetan joan hintzana

Beti gogoratuko zaitugu

Lakuntzako abeltzainak

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

HERIOTZAK

- Clara Garmendia Selva, otsailaren 3an Urdiainen
- Joxe Katarain Apaolaza, otsailaren 14an Lakuntzan
- Jesus Mari Lopez Danso, otsailaren 14an Uharte Arakilen
- Jose Betelu Aldaz, otsailaren 16an Uharte Arakilen



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**

Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOZAK

- Valeria Sanchez Gonzalez, abenduaren 21ean Ziordian
- Hegoa Urdiain Jimenez, ilbeltzaren 13an Ziordian
- Jule eta Eunat Larraza Gastaminza, otsailaren 13an Urdiainen
- Iraia Fernandez de Garaialde Lazkano Dieguez, otsailaren 15ean Altsasun

EZKONTZAK

- Tarik El Ouardi El Ouardi eta Chaimae El Attar, otsailaren 16an Ziordian

DUELA 25 URTE...



AEK-k euskaltegia mustu zuen

Helduak euskalduntzeko zereginean AEK-k lokal egokia mustu zuen otsailaren 14an. Kisusgil, iturgin, margolari eta ia "ingeniari" lanak egitea tokatu zitzaizen AEK-koei etxebizitza zena ikastegi bihurtzeko. Euskaltegiaren mustutze ekitaldira irakasleak sekula baino "dotoreago" agertu ziren. Altsasun soilik AEK-k 120 ikasle zituen eta beste 70 bat Irurtzun, Lakuntzan, Etxarri Aranatzen, Olatzagutian eta Ziordian.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU

Bi garaje plaza salgai Etxarri Aranatzen, oso prezio onean. Deitu 661 186 576.

JOAN-ETORRIA

Sakana Gasteiz joan-etorrian: Goizero Sakana-tik Gasteiza joan-etorrian dabilen norbaiten bila nabil, ikastera joateko garraio gabe gelditu naiz eta. 688 688 868 Jokin.

IKASTAROA

Gatazken konponketa ikastaroa Altsasuko Intxostiapuntan: Martxoaren 6an eta 13an, 10:00etatik 14:00etara. 16 - 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Plaza mugatuak dira, 12 euroko kostea du eta ziurtagarria emango da. 012 deitu, izena emateko azken eguna otsailaren 28a izango da. Informazio gehiago 948 564 785 / 607 617 778 tfnotan.

OHARRAK

Altsasuko isunen aurkako taldearen saski erotikoen zozketaren zerbaki sarituak: 97, 132 eta 542 izan dira. Boletoa saldu dizuenarekin kontaktuan jarri edo idatziguzu isunakaltsasu@gmail.com helbidera eta saskia helaraziko dizugu.

Lakuntzako Gazte Asanbladaren zozketako zerbaki sarituak: 1.saria 080 (ordezkaria 591), 2. saria 436 (ordezkaria 393) eta 3. saria 196 (ordezkaria 600). Zerbaki saridun bat izanez gero idatzi haren sare sozialetara edo lakuntzakogazteasanblada@gmail.com helbidera.

Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daiteke: Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankon; Etxarri Aranatzen Kaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan. 15 eurotan dago salgai.

Gazte Agora: Izen hori duen ekimen horren baitan Eusko Ikaskuntzak,

Euskadiko (EGK) eta Nafarroako Gazte Kontseiluek (NGK) bat egin dute. Parte hartze foroaren bidez "Gazteen aniztasuna eta gobernantza eredu berriak: Mugaz gaindiko gazteen lankidetzarako oinarriak" txostena egin dute (<https://labur.eus/ltFr1>). Apirilean gazteriarren inguruko Jardunbide Egokien Foroa egingen dute eta hartarako proposamenak jasotzeko epea ireki dute, otsailaren 19ra arte; elkarte, kolektibo eta erakundearen proposamenak egin ditzakete Eusko Ikaskuntzaren webguneari bitartez (<https://labur.eus/6xsya>).

OPATUTAKOAK

Etxarri Aranatzen 4 gilitza topatu dira: Restaurante San Fermin izena duen gilitzarrapoan eta Harzabal dermionan mosketoi gris batean bilduta dauden 6 gilitza. Udaltxan daude jasotzeko.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es



Jon Arakama Goikoetxea, idazlea eta youtuberra. UTZITAKOA

"Sormena ez da ezerezetik sortzen"

JON ARAKAMA GOIKOTXEA IDAZLEA ETA YOUTUBERRA

Ettxarriarrak ikus-entzunezko komunikazioa eta gidoigintza ikasketak egin ditu. Idazletzat du bere burua. Oso denbora gutxian 10.000 jarraitzaile lortu ditu bideo plataforma batean

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Kazetaria baino idazlea dela esan du Jon Arakama Goikoetxeak. Bere testuak eta eleberrak bere izena duen blog batean elkarbanatzen ditu. Idazlea izatea nahi du. Haren testuetan bizipenak, esperientziak eta entzundako eta ikusitako gertaerak nahasten ditu, narrazio "entretengarriak" sortzen. Youtuberrak eta twitcherak ikertzen hasi da ere, eta bere bideo bat birala egin da. Meneamen agertu da ere bere youtuber izena: Lord Draugr. **Nola deskribatuko zenuke zeure burua?**

Ez dakit zehazki nola deskribatu. Azkenean, askotan deskribatzean zerikusi handia du zertaz bizi zaren, eta horretarako esan behar-

ko nuke kick boxing entrenatzalea naizela. Horretan egiten dut lan. Nire egunerokotasunean gidoiak, fikziozko narrazioak eta edozein gauza idazteari eskaintzen diot denbora gehien. Kazetari bezala ere aritzen naiz. 18 urterekin ez dakizu zehazki zer egin nahi duzun. Orduan, beste karerra bat egiten hasi nintzen, ingeniari-tza, eta utzi nuen. Oso galduta nengoen eta ikus-entzunezko komunikazioa egiten hasi nintzen. Ez dakit zergatik. Argi ikusi nuen idaztea txikitatik egiten dudala, eta jarraitzen dudala. Aurretik ikasitakoa aprobetxatzeko gidoigintza egitea erabaki nuen.

Zein da zure idazteko prozesua? Normalean ez naiz zerotik hasten. Ni errealtatean eta esperientzian

oinarritzen naiz. Bai nirean eta baita ingurukoenean. Gauza horiek nahasten ditut, baita beste sortzaileek egiten dutenarekin ere. Pelikula bat ikusten badut eta gatazka interesgarria dela iruditzen bazait edo pertsonaia batek garapen interesgarri bat egiten duela, hori hartuko dut, errealtateko zerbaitekin nahastuko dut eta horrela istorio bat aterako zait. Nik uste ez dela inoiz ezerezetik sortzen, sormenak ez du horrela funtzionatzen. Inguruan dauden gauzak bata bestearekin nahastuz sortzen da. **Zure narratzailea kazetari bat izan ohi da. Zure alter egoa izan daiteke?** Ariketa moduko bat egin dut. Duela gutxi hasi nintzen honekin. Sakanako rave batean infiltra-

tuta artikulua erekin hasi nintzen, eta beste artikuluren bat egin dut estilo horretan. Orain Youtuben hasi naiz eta ez dakit pertsonaia bera den edo ez.

Blog batean idazten dituzu.

Nik argi neukan honetan jardun nahi badut, epe luzerako prozesu bat dela. Orduan, ezin dut idazten den guztia argitaratu. Beraz, egindako ariketa asko, ipuinak, eleberrak, narrazioak eta abar, blog batean publikatu ditut: <https://jonarakama.wordpress.com>. Gainera, Amazonen erdarazko narrazio labur bat publikatu dut eta blogean, euskarri digitalean, eleberrak publikatu ditut.

Zer moduz doaz?

Ongi. Batez ere eleberria. Jende asko rave-aren artikulugatik sartu zen. Testu hori eleberria sustatzeko erabili nuen eta berrogei lagun baino gehiagok deskargatu zuten. Gehiago sartu ziren. Hortik zenbatek irakurriko duten? Auskalo. Baina irakurri dutenek esan dute entretenigarria dela, eta hori niretako dena da. Norbaitek osorik irakurri duela jakitea niretako lorpen bat da.

Zer kontatzen du eleberririk?

Gazteendako literatura da. 13 urteko gaztetxo kuadrilla baten istorioak kontatzen ditu eta irakurtzeko oso arina da. Ez dauka inolako hondorik. Kuadrilla kontuak deitzen da, eta adin horrekin gertatzen diren gauzak aipatzen dira: txabolak, gerrak, borrokak, traizioak, laguntasuna... oso entretenigarria da.

Esan daiteke zure estiloa zinematografikoa dela?

Bai. Askok gainera. Irakurtzeko garaian ere, liburu bat hasten naizenean eta ikusten badut pixka bat astuna dela... Batzuetan fantasiako eleberrietan gertatzen da adjektiboekin oso deigarri gelditzen dela. Niri kontrakoa gustatzen zait. Gidoigintzan estilo zuzena erabiltzen da. Ez da gehiegi azaltzen, inportanteena irakurri behar duenak argi izatea zer esan nahi duzun horrekin. Ideia bera erabiltzen dut edozein gauza idazteko.

Youtuben hasi zara ere.

"EZ NUEN ESPERO BIDEOA BIRALA EGITEA; HORREKIN KANALAK BOOM BAT JO DU"

Lord Draugr kanalarekin abenduan hasi nintzen. Hasieran proiektu bat bezala hasi nintzen: gidoigintza egin dudanez youtuberrak eta streamerrak gidoilari baten ikuspuntutik aztertzen hasi nintzen. Horrekin hasi nintzen baina gero eraldatzen joan naiz eta kazetari kontu horrekin nahasten hasi nintzen eta orain arrakasta izan du justu horrengatik, kazetari estilo horrengatik. Only fansen batean eta ingeleseko masterclass batean infiltratu nintzen. Azkenengo bideo hori biralizatu egin da eta orduan aste batean jende asko kanala jarraitzen hasi da. Aste honetan 10.000 jarraitzaile iritsi naiz. Flipatzen ari naiz Youtubeko kontuarekin. Euskarazko beste kanal bat dut ere: Emaionk Media izenekoa. Arte martzialei buruz hitz egiten dut. Hiru urte daramatzat horrekin, eta bideoak igotzen jarraitzen dut ere.

Espero zenuen bideo hori birala egitea?

Ez nuen espero. Pasada bat izan da. Horrekin batera kanalak goradakada bat izan du eta oso pozik nago feedback asko jasotzen ari naizelako. Milaka iruzkin jartzen dizkirate, ez bakarrik biralizatu den bideoan, baizik eta bestetan ere. Jendeari gustatzen zaio nola komunikatzen dudana, hori esaten didate. Oso pozik.

Nola bururatu zitzaizun?

Infiltratzearen kontu horrekin doala uste dut. Rave-arena egin nuen, gero only fasen infiltratu nintzen eta ingelesezko masterclass hori meme bat bihurtu zen; oso ospetsu bihurtu zen iragarki hori leku guztietan agertzen zelako. Askok agertzen zen. Orduan, pentsatu nuen begiratzera sartuko nintzela marketing aldetik nahiko gauza zezudela ikusi nuelako. Berehala konturatu nintzen zertaz zihoan dena. Bideo interesgarria iruditu zitzaidan.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Etorkizunerako gustatuko litzaidake idazteaz bizitzea. Baina oso zaila da. Hemen gidoilari bezala aritzen direnak ez dira horretaz bakarrik bizi. Lan gehigarria da. Orduan, oso zaila da horretaz bizitzea. Baina ez da hainbeste zertaz bizi nahi dudana, baizik eta zer egin nahi dudana eta gustatuko litzaidake bost edo hamar urte barru idazlea izatea. Auskalo horretaz bizitzea lortzen dudana. Baina behintzat liburu bat argitaratua izatea.



'Mari Pompas' ikuskizuna. UTZITAKOA

Burbuilen edertasuna "paregabea" da

Otsailaren 28an, igandea, 17:00etan, 'Mari Pompas' ikuskizuna izanen da Olaztiko kultur etxean. Antzerkia eta burbuilen artea uztartzen ditu, eta Jose Luis Lagos "burbuilen mago" aitzindaria da sortzailea

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

Mari Pompas Mary Poppyns haurtzain ospetsuaren birbiloba da. Bere iritziz gizaki guztiek

doai bereziak dituzte, baina ba-koitzak berea aurkitu behar du. Marik berea aurkitu du: Xaboi burbuilak egiten ditu. Hauek

mota askotakoak izan daitezke. Halako batean, sortzen dituen burbuilen artean eztabaida sortzen da, batzuk desberdinak di-



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Linares eta basakeria

Linaresko polizien jardunak ez gaitu gehiegi harritu; benetan guztiz berria gertatu zaiguna izan da poliziaren basakeriaz hitz egiten den lehenengo aldia dela. Beharbada, gauzak aldatzen ari dira.

Inplikaturako poliziek, bestalde, ohiko gidoia jarraituz, epailearen aurrean adierazi dute haiek ezinbesteko indarra erabili dutela, baina ez du ematen sinetsi dietenik.

Neurriko indar horrek lesio larriak eragin dizkio gizon bati aurpegian, zauri larriak sudurrean, puntu batzuk bekain batean eta arazoak kornean, eta begia gal lezake. Gainera, 14 urteko alaba jipoitua eta shock egoeran utzi du, baina bi polizietako bat ere ez da damutu.

"Ia arratsaldeko sei eta erdiak ziren", esan du lekuko batek. "Odol putzu ikaragarria zegoen".

Linares herri osoa atera da kalera eta erantzun azkarra eman du erasoaren aurrean, baina tertuliakide batzuentzat, arrazoi osoa galdu dute erabiltzen ari diren formengatik, heziketa txarrekoa baita kalera ateratzea eta poliziaren kontra protestatzea.

Etxean geldi zitezen nahiko lukete hauek eta, batzuek egin duten bezala, loreak bidai ziezaizkietela komisaldegira, kalte ordain moduan. Halere, inor ez da ausartu terroristatzat jotzera, ezta gorroto deliturik leporatzera ere, Linares Euskal Herrian ez dagoelako.

Epailleak, bere aldetik, segurtasun indarrentzako modulu berezi batera eramatea erabaki du, bi errudunak kartzela normal batean beste preso batzuen erasorik jasan ez dezaten.

Gaizkile hauena ez da isolaturiko jokaera. Joan den astean COVID-19k torturatzaile handi bat eraman zuen, barkamenik eskatu gabe eta damutu gabe. Bere krimen larrien ordainez kondekoratu eta jeneral bihurtu zuten. Hau ezin da errepikatu, eta Linareskoekin gertatu den bezala, errudunak errudun direla aitortu behar da, erruduna nor den ere.

Edozein kidegoetarako sarbidea kontrolatuago egon beharko litzateke. Frogatu beharko litzateke izangaiak balio etiko eta moral handiak dituela proba fisikoak egin aurretik. Eta giharrei erreparatu beharrean, garunei erreparatu beharko litzaeieke.

relako, eta horregatik taldetik bota nahi dituztelako. Baina Mari Pompas arazoa konpontzen saiatuko da. "Gure lanek mezu bat izatea saiatzen gara". Jose Luis Lago *Mari Pompas* ikuskizunaren sortzailea, zuzendaria eta ekoizlea da. Xaboi burbuilen artearen aitzindarietako bat ere bada. Otsailaren 28an, igandean, 17:00etan, emanaldia egingen dute Olaztiko kultur etxean.

Josu Luis Lago "betidanik" da artista. Bost urterekin igo zen lehenengo aldiz agertoki batera. "Nire aita magoa zen eta berarekin hasi nintzen. Magia egiten nuen, gero akrobaziak, orekak, zirku arteak...". Zerbait "desberdina" egin nahi zuela konturatu zen. "Zerbait berritzailea egin nahi nuen, eta burbuilekin hasi nintzen". Urte pila bat aritu zen bere etxeko "laborategian" xaboi burbuilak egiteko formula "perfektua" bilatzen, "gaur egun egiten dena lortzeko". Ikerketa ordu asko, entseguak, irakurketak eta esperimendu asko izan zirela azaldu du artistak. "Pixkanaka, lan askorekin, eta zorte pixka batekin formula eta teknika topatu nituen".

Duela 25 urte inguru hasi zen burbuilen munduan. "Estatuan aitzindaria izan nintzen". Hasi zenean European bi "burbuilen mago" zeuden, "ez dago guztiz definituta nahiko berria delako oraindik". Internetarekin geroz eta gehiago "ateratzen" ari direla esan du, baina oso "artisaua" dela esan du. "Ez dago non ikasi".

Magia

"Niretako burbuilak bereziak dira duten magiagatik. Ikuskizuna gehiago edo gutxiago gustatuko zaizu, baina inork ezin du esan inoiz xaboi burbuila bat itsusia dela. Zerbait polita da. Jende guztiari gustatzen zaio". Burbuilen sekretua burbuilak berak dira. "Edertasun hori oso gauza gutxitan aurkitzen da". Denborarekin burbuila mota, kolore eta forma askotarikoak garatu ditu. "Laukiak ere egitea lortu nuen".

Burbuilak egiten hasi zenean, Lagok "zerbait desberdina" egin nahi zuen. *Fantasia con burbujas* bere ikuskizunarekin denbora asko egon zen, "berritzen eta aldatzen nuen, baina urrats bat gehiago eman nahi nuen". Burbuilak bere beste pasioarekin uztartzea erabaki zuen: antzerkia. Duela hamar urte inguru *Un lugar en tu corazón* antzezlanana mustu zuten, Fetenen saria irabazi zuena.

Berrehun emanaldi baino gehiago egin zituzten. "Baina beste ukitu bat eman nahi izan genuen, eta zerbait ezagunagoa egin". Mary Poppynsen birbilobaren pertsonaia asmatu zuten: Mari Pompas. "Pertsonaia zoragarria eta atsegina da. Gozarazten du. Burbuilen magia ez ezik, berak ere magia du". Bere eginkizuna desberdintasunei aurre egitea da. Burbuilen izaera bisualetik haratago joan dira ikuskizun honekin. "Mezu bat dauka eta beti saiatzen gara positibotasuna zabaltzen".

Burbuilak egiten

Mari Pompas da agertokian agertzen den "persona" bakarra. "Loroa den euritako dauka. Esan daiteke bere alter egoa dela, eta errealitatera eraman nahi duela berrito. Berarekin eztabaidatzen du, baina ezin du bera gabe utzi". Irina Bagues da aktorea, "izugarria da. Loroaren laguntza izanda ere, agertokian bakarrik dago eta bakarrik interpretatu behar du eta gainera burbuilak egiten ditu, aurretik ez zekien arren". Berak bakarrik ikuskizuna aurrera eramaten du. Valentziako aktoreen elkarteko sarietara izendatu dute.

"Nik esaten dut burbuilak egiten ez dela inoiz ikasten. Nik oraindik ikasten jarraitzen dut. Baina ikasketa prozesua ere izugarria da". Burbuilekin "gozatzen" da, eta, beraz, ezin dela lan bat bezala hartu aitortu du. "Goza-mena da burbuilak egitea". Hainbeste urteren ondoren oraindik harritzen dela esan du Lagok. "Ez daude bi ikuskizun berdina. Burbuilak modu desberdinetan aritzen direlako". Ez du burbuilekin lan egiten, burbuilek berarekin lan egiten dute.

Inprobisazioa, beraz, ezinbestekoa da. "Burbuilak ulertu behar dira eta jakin behar da momentu bakoitzean zer egin". Haiek erabakiko dute ikuskizunaren norabidea. "Emanaldiak asko aldatzen dira. Egun berean guztiz desberdinak izan daitezke".

Mari Pompas ikuskizuna haurrendako bideratutako ikuskizuna da, baina adin guztietarako dela esan du ekoizleak. "Nire ikuskizuna da, zer esango dut nik. Baina orain arte ikusi duen jende guztia liluratuta atera da. Oso polita dela esan dute. Magikoa". Publikoaren erantzuna "izugarria" izaten ari dela esan du. "Haurrek ez ezik, helduek eta gazteek ere asko gozatzuten dutela esaten dute".

Erkuden R. B. eta Eneida C. M. LAKUNTZA Musikaren munduan urte asko daramatzate La Excavadora talde berriko kideek. Ez dira hutsetik hasi. Esperientzia gradu bat da, eta horregatik pandemia egoerak ez du haien jarduna eten. Diskoa kaleratu dute eta kontzertuak eskaintzen dituzte, desberdinak badira ere. "Egoerara moldatu beharra dugu, guk aurrera egin nahi dugu". Mikel Azpiroz 'Buton' lakuntzarra taldeko baxu jotzailea da.

Nola sortu da La Excavadora?

La Polla despedida bira egiteko bueltatu zen eta Gatillazo urte pare batez geldirik egon behar zenez, Txikik, aguraindarrak, komentatu zigun ideia batzuk zeuzkala eta ea zer iruditzen zitzaien. Maketa egin zuen eta entzun genuen. 2019 urte amaieran izan zen. Pela abeslaria izatea erabaki genuen. Punk arlotik gatz, eta bera rockeroagoa da. Baina erakutsi genizkion abestiak, gustatu zitzaizkion eta gurekin bat egin zuen. Bateria fitxatuta genuen: Mikel, gasteiztarra. Boskotea sortu genuen, eta aurrera.

Zer dauka Agurainek?

Boompataeroa deitzen zaio, ezta? La Polla Records taldeak sortu zuen kultura hori. Araia aldetik ere Joselu Anayak daude. Urte asko daramatzate. Baina esango nuke La Polla Recordsek sortu duela kultura hori. Talde pila bat daude Agurainen. Gainera, aukerak ematen dituela esango nuke. Lokal asko daude eta herriak erraztasunak jartzen ditu.

Nondik datorkizu musikarekiko zaletasuna?

Betidanik gustatu zait. Gehien gustatzen zaidana, gainera, ohol-tzaren gainera igotzea eta kaletik ibiltzea da. 15 edo 16 urterekin txarangarekin ateratzen nintzen. Primeran pasatzen genuen, lekuak eta jendea ezagutzen genuen. Beti gustatu izan zait saltsa hori. Ez dut nire burua musikari ontzat hartzen, baina saltserotzat bai.

Musikaria beti da musikari?

Nik uste dut baietz. Bada jende pila bat esaten duena bizitzako fase hori bukatu dela, lana aurkitzean edo haurrak izatean. Baina beti hortxe izaten duzu arantza txiki bat bihotzean deitzen dizuna instrumentua hartzeko, abesteko eta dantza egiteko. Musikari jaiozen dena, musikari hiltzen da.

Sortzailea zara ere, ezta?

Gure lana egiteko modua hori izaten ari da. Bakoitzak ideia bat ekartzen du eta lokalean aurkezten dugu.

"Gauzak argi esaten ditugu"

MIKEL AZPIROZ 'BUTON' LA EXCAVADORA

2019 urtearen amaieran musika proiektu berri bat sortzen hasi zen Agurainen: La Excavadora. Tartean lakuntzar bat dago



La Excavadora musika taldea. UTZITAKOA

Bosten artean zer gehitu, kendu, ongi hala gaizki dagoen erabakitzen dugu. Horiek entzuteko prest gaude, eta gainera oso harreman ona dugu. Ez dago arazorik bakoitzak bere iritzia emateko.

Hortaz, diskoaren prozesuan guztien alea dago.

Bai. Hasieran Txikik ekarritako ideiak ez du zerikusirik diskoan entzuten dugunarekin. Guztiok jarri dugu gure ukitua. Lana elkartu dugu, estiloak nahastu ditugu, bakoitzak bere iritzia eman du eta letrak ere guztien artean egin ditugu.

Zuen urtetako esperientzia nabaritzen da?

Esperientzia puntu hori nabaritzen da. Bakoitzak zenbait disko grabatu ditugu eta argi geneukan zein izan behar zuen azken produktua. Gauzak argi genituen, ideiak ere oso eskematuak genituen. Ez da egiten dugun lehendabiziko diskoa.

La Excavadora izena nondik?

Barreak bota genituen honekin. Elkartzen ginen lehenengo aldia, Pelarekin elkartu ginen bazkal-tzera eta bukatzean bere lokale-ra joan ginen. Lehendabiziko aldiz abestiei letrak jartzen ari-tu ginen. Sortu zen bat tipo batek hondeatzaile bat hartzen zuela eta hortik izen pila bat sortu ziren. Azkenean abeslariak La Excavadora proposatu zuen. Hasieran harrituta gelditu ginen, baina idatzita ikustean gehiago gustatu zitzaigun. Hondeatzaileak ezagunak dira eta jendeari gustatzen zaizkio. Aldi berean, txikitzailea da.

Zenbat denboraz aritu zarete diskoak prestatzen?

Justu hasi ginenean eta boskotea sortu genuenean, lokalean lan egiten hasi ginen eta bigarren entsegurako etxera bidali gintuzten. Lehenengo konfinamendua izan zen eta etxetik lan egiten genuen, baina ez da berdina. Gu ez gara telekomunikazioetan oso adituak. Telefonotik abesten genuen eta hor jarri edo hor kendu esaten genuen. Irailean estudioan sartu ginen. Geldiune pare bat izan ditugu, baina esan dai-

teke ez garela guztiz gelditu. Asko ikasi dugu, gainera.

Kulturgintza oso ukitua gelditu da.

Musikariak ez ezik horien ondoan lan egiten duten beste gremioak ere: teknikariak, muntatzaileak... denek esten dute kolpe izugarria izan dela. Kultura moztu dute. Kontzertuak bertan behera gelditzen dira eta edukiera mugatua da, maskara jantzita eraman behar, ezin kontsumitu... Gainera, gure musikak ekartzen du gaueko giroa, eta hori moztu da bat-batean. Egoera honi moldatu beharra dugu. Guk argi dugu lan egin nahi dugula, honekin aurrera joan nahi dugu.

Kontzertuak egin dituzue, eta aurreikusita dituzue.

Hell Doradon bi pase egin genituen. Emanaldi bakoitzean 60 pertsona zeuden. Gogorra da. Guztiendako. Kantautore bat ikusteko, ongi. Baina gure musika oihukatze eta salto egiteko da. Gainera, aretoetan dena kontrolatzen egon behar dira, eta astuna egiten da ere. Larunbatean Oñatin dugu, 27an Bermeon, 6an Bilbon, 14an Madrilen eta 26an Zamoran Musikaren feria hispano-luson.

Bidea irekitzeko esperientziak lagundu dizue?

Bai, laguntzen du. Merkatu horretan egotea eta kontaktuak izatea. Jende asko enteratu da eta oso pozik gaude. Ez genuen espero hainbeste arrakasta edo jendearen iritzia hori izatea. Eskertzekoa da Maukak ere diskoa egin nahi izatea.

Nolakoa da diskoa?

Ez dugu ezer berririk egin. Betikoa: rock&rollak esaten duena. Gauari, neskato edo mutikoei, drogei, gaueko kultura hori... Galtzaileendako musika hau beti gustatu izan zaigu eta letra gehienak horri buruzkoak dira.

Gogorrek dira edo badago baten bat lasaigoa?

Gauzak argi esaten ditugu, baina badira beste abesti batzuk *Contra el suelo* eta *La reina de la fiesta se deja esperar*, esaterako, metafora antzeko bat daukana. Gustatu zaiguna da jendearekin hitz egiten bakoitzak esanahi bat aurkitzen diela abestiei. Irekita uztea eta bakoitzak nahi duena pentsa dezala asko gustatu zaigu. Pozik gelditu gara. Ondo sartzen dira, ez dira aspergarriak egiten. Lehenengo entzunaldietan pixka bat harrituta gelditzen dira, baina gero berriz entzuten dute oso erraz entzuten delako.

"BETI IZATEN DUZU ARANTZA TXIKI BAT INSTRUMENTUA HARTZEKO DEITZEN DIZUNA"



Frontoia Martxan taldeko kide batzuk, 1977ko Eskola Laboraletako Sakana frontoi parean. Lanak oso aurreratu daude. UTZITAKOA

"Gazteak berrikuntzan inplikatzeari nahi dugu"

Frontoia Martxan taldearekin bat egin dute Lakuntzako herritarrek, taldeek, enpresek eta udalak eta Eskola Laboraletako Sakana frontoia berritzeko lanak hasi dira. Aurki auzolanak deituko dira eta bertan parte hartzeko deia egin diete lakuntzarrei

Maider Betelu Ganboa LAKUNTZA

1 Noiz sortu zenuten Frontoia Martxan taldea?

Duela 3 urte 8 lakuntzarrek Frontoia Martxan taldea sortu genuen, 1977ko Laboraletako Sakana Frontoia berritzearen beharraz

jabetuta. Udaletxean bilera deitu eta 40 pertsona inguru bildu ginen, herriak frontoia berreskuratzeko zuen interesaren isla.

ERAMAN ZURE MARKA BESTE MAILA BATERA

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA**

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu

2 Urte luze hauetan Sakana frontoia erabili izan da?

Bai. Gazteak bertan bildu izan dira futboleko jokatzeko, eta horretaz gain Osasuna Fundazioak, Lagun Arteak Futbol Taldeak eta Aralar Txirrindularitza Taldeak erabili izan dute. Egoera gero eta okerragoa zela ikusita, frontoia bera galduko ote genuenaren kezka piztu zitzaigun. Halako azpiegitura berri bat egiteak 500.000 eurotik gorako aurrekontua du. Nola utziko dugu alferrik galtzen?

3 Frontoia erabiltzen zen, baina bere egoera ez zen batere ona.

Hala da. Denborarekin itsesurak agertu ziren, fatxadako eta teilatuko plakak apurtu ziren, grafitiak agertu ziren, atea bera ere desagertu zen... 2019an Lakuntzako Udalak teiltatzen zenbait plaka berritu zituen, baina hila-bete gutxira haizete batek eraman zituen. Aterik gabe eta pareta bat zulatuta egonda haizea sartu eta sekulako presioa egiten zuen frontoi barrenean. Orain ate berria jarri dugu eta lasaitu ederra hartu dugu, egia esan.

4 Taldearen lehen pausoak zeintzuk izan ziren?

Eraikitzaile batekin bildu ginen, eta hark emandako argibideak jarraituz frontoia berritzeko 35.000-40.000 euroko gutxieneko aurrekontu bat prestatu genuen. Sakana Fundazioan aurkeztu genuen, eta kooperatibak ekarpen handia egin zuen, orain martxan jarri ditugun lanak egitea ahalbideratu duena. Bestalde, 2019an haizeak teiltatuko plakak eraman zituela eta, udalaren aseguruak hori estaltzen duenez diru kopuru bat sartuko da ere.

5 Frontoia berrikuntzak herriari ahalik eta gastu gutxien sortzea du helburu? Bere garaian parkea egiteko Parkea Martxan taldeak egin zuen auzolan lanarekin jarraitzea?

Bai. Herriaren alde asko mugitzen den herria da Lakuntza. Horren adibide da Parkea Martxan, herriko parkea goitik behera berritu zuena. Gureak ekimen horren luzapena izan nahi du, horregatik hartu dugu izen hori.

6 Zein lan egin dituzue lehen fase honetan?

Lehenik eta behin oztopo arkitonikoak kendu dira eta ateraino doan porlanezko sarbide zabala egin dugu. Bestalde, ate berria jarri da. Lakuntzako Industrias Barga enpresan sekulako atea diseinatu eta egin dute, materiala eta diseinu kostuak euren gain hartuz. Segurtasun neurri guztiak betetzen ditu. Horretaz gain, itsesurak konpondu dira eta fatxadako plakak berritzen eta teiltatuko konponketa lanak egiten ari dira. Azkenik, LED argiteria berria erosi dugu, aurrezpen energetiko handia ekarriko duena eta aurki jarriko dena.

7 Margotze eta garbitze lanak auzolanean egin nahi dituzue?

Bai. Herritarrak frontoiaren berrikuntzan inplikatzeari nahi dugu. Bereziki gazte kuadrillak erakarrari nahi ditugu, aurrekoan parkearen eta kultur etxearen berrikuntzan inplikatu ziren bezala. Jendeak parte hartzen badu, instalazioak askoz ere gehiago baloratu eta zaintzen ditu. Lotura berezia sortzen da. Hori oso argi ikusi zen parkearen berrikuntzarekin, eta orain lotura hori frontoiarekin izatea nahi dugu. Frontoia garbitu, margotu, futbol ateak jarri, saskibaloiko saskiak jarri... halakoak auzolanean egingo ditugu.

8 Aralar Txirrindularitza Taldea, Lagun Arteak Futbol taldea eta herriko gainontzeko taldeak zuen egitasmoan daude?

Bai, Frontoia Martxan taldean daude. Frontoia berritzea herri-tar guztiendako onuragarria da.

9 Auzolanetan aritzera animatuko dituzue lakuntzarrek?

Jakina. Interesatuak jar daitezela gurekin harremanetan (frontoiamartxan@gmail.com).

10 Frontoia noizko egongo da erabilgarri?

Udarako. Lanak bukatuta, bilera bat deituko dugu, frontoiaren erabilera nola egin erabakitzeko.

11 Herriko eragile guztiak norabide berean zaudete.

Bai, eta hori da garrantzitsua. Sarritan gauzak berritzea eskatzen zaio udalari, baina atzean herritar talde bat laguntzeko prest badago, ekimenak errazago ateratzen dira aurrera.